



2023-2024 IKASTURTEAREN ANTOLAKETA HEZKUNTZA-ADMINISTRAZIOAREN TITULARTASUNEN KONTSERBATORIOETAN

A decorative graphic consisting of several parallel blue lines of varying thicknesses, slanted diagonally from the bottom left towards the top right, crossing the main title area.

**Resolución de la
Viceconsejera de Educación**



AURKIBIDEA

SARRERA	3
I. <u>IKASTEGIKO JARDUERA PLANIFIKATU ETA ANTOLATZEKO TRESNAK</u>	4
1.- <u>IKASTEGIAREN HEZKUNTZA-PROIEKTUA ETA CURRICULUM-PROIEKTUA.</u>	
2.- <u>ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA.</u>	
3.- <u>IKASTEGIAREN URTEKO PLANA.</u>	
4.- <u>URTEKO MEMORIA.</u>	
II. <u>IRAKASLEEN ANTOLAKETARI LOTUTAKO ALDERDIAK</u>	9
1.- <u>URTEKO LANALDIA</u>	
2.- <u>ASTEKO LANALDIA</u>	
3.- <u>IRAKASKUNTZA-JARDUERAREN ANTOLAKETARI LOTUTAKO ALDERDIAK</u>	
4.- <u>ZUZENDARITZA-KARGUAK ETA BESTELAKOAK</u>	
5.- <u>IRAKASLEEN BERTARATZEA</u>	
6.- <u>KOORDINAZIO PEDAGOGIKORAKO ORGANOAK</u>	
7.- <u>HEZKUNTZA-ARRETA</u>	
8.- <u>TUTORETZAK</u>	
III. <u>IKASLEEN ANTOLAKETARI LOTUTAKO ALDERDIAK</u>	23
1.- <u>IKASLEEN ANTOLAKETA</u>	
2.- <u>IKASLEEN ORDUTEGIA</u>	
3.- <u>NEURRI ESPEZIFIKOAK</u>	
4.- <u>BALIOZKOTZEAK ARAUTU GABEKO LUTHERIA-IKASKETETAN</u>	
5.- <u>IKASLEEN BERTARATZEAK ETA BAJAK</u>	
6.- <u>IKASTEGIZ KANPOKO JARDUERA OSAGARRIAK</u>	
7.- <u>IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK</u>	
8.- <u>BABES-ESKUBIDEA</u>	
9.- <u>IKASLEEN ESPEDIENTE-LEKUALDATZEA</u>	
10.- <u>MATRIKULA BALIOGABETZEA</u>	
IV. <u>IKASLEEN EBALUAZIOARI LOTUTAKO ALDERDIAK</u>	26
1.- <u>EBALUAZIO-BILERAK.</u>	
2.- <u>BALIOZKOTZEAK ETA CURRICULUM-EGOKITZAPENAK.</u>	
3.- <u>ARAUTU GABEKO LUTHERIA-IKASKETAK (BELE)</u>	
4.- <u>KALIFIKAZIOEN GAINEKO ERREKLAMAZIOA JARTZEKO PROZEDURA.</u>	
V. <u>IRAKASKUNTZEN CURRICULUMA. PROIEKTUAK</u>	30
1.- <u>CURRICULUMA</u>	
2.- <u>RATIOAK. APLIKAZIOA</u>	
3.- <u>TALDE-JARDUERAK</u>	
4.- <u>HAUTAZKOEN ESKAINTZA</u>	
5.- <u>KONTSERBATORIOEK KOORDINATUTAKO SAILAREN PROIEKTUAK</u>	

**VI. IKASTETXEAREN FUNTZIONAMENDUAREN BESTE ARAU BATZUK..... 33**

- 1.- IKASTEGIETAKO ERAIKIN ETA INSTALAZIOEN ERABILERA URTEKO PLANETIK KANPOKO JARDUERETARAKO
- 2.- IKASTEGIKO IKASLEEN ESKOLA-ASEGURUA
- 3.- DATU PERTSONALEN BABESA
- 4.- IKASTEGIEN JABETZA INTELEKTUALA
- 5.- IKASTEGIETAKO OSASUNARI ETA SEGURTASUNARI BURUZKO ARAUDIA
- 6.- LAN-ARRISKUAK PREBENITZEKO ZERBITZUAK

ARAU OSAGARRIA**ERANSKINAK..... 38**



HEZKUNTZA-ADMINISTRAZIOAREN TITULARTASUNEN KONTSERBATORIOAK 2022-2023 IKASTURTERAKO HEZKUNTZAKO SAILBURUORDEAREN EBAZPENA

Ebazpen honen helburua da Eusko Jaurlaritzaren mendeko hiru kontserbatorioen antolaketarako eta funtzionamendurako funtsezko jarraibideak ezartzea; besteak beste, zentro horietako prozesu pedagogikoetan eragina duten zenbait neurri.

Kontserbatorien zuzendaritza taldeak behar diren neurriak hartuko ditu ikastetxeko irakasle guztiek ebazpen honen eduki osoa ezagutzen dutela bermatzeko.

Era berean, ikastetxeetako ordezkari-organoren legez esleitutako eskumenak eta ebazpen honetan jorratutako gaiak kontuan hartuta, ikastetxe bakoitzeko zuzendaritza-taldeak ebazpen honen edukiaren berri emango dio aipatutako Ordezkaritza Organo Gorenari, ikasturtearen hasieran egingo duen lehenengo bileran.

SARRERA

Azken ikasturtetan zehar hezkuntza-sistemak erakutsi duela erresilientzia-gaitasuna duela egoera aldakorretara egokitzeko, eta gertaera hori palanka bihurtu da hura garatzeko eta indartzeko. Halaber, berrikuntzako eta etengabeko hobekuntzako jarduerari berriro ekiteko heldu beharreko erronkei buruz pentsatzen jarraitu behar dugu.

Lehenik eta behin, identifikatutako erronkak lantzen jarraitu nahi dugu, eta ikastetxeei eta hezkuntza-komunitate osoari aholkularitza eta laguntza hobea eman.

Jakina, ebaluazio-tresnak lantzen eta ikaskuntza hobetzeko eta neurtzeko modu berriak bilatzen jarraitu behar da, hezkuntza-sistemaren etengabeko hobekuntzan eragin ahal izateko aukera berriak integratuz, hezkuntza-prozesu horietan arreta handiagoa jarriz, ikaskuntzarako arrakasta-palankak eta hobetzeko aukerak identifikatuz, betiere ikasleak eta haien hezkuntza-premiak, sozialak eta emozionalak ardatz hartuta.

Premia guzti horiei erantzutea erronka handi bat da eta hezkuntza-jarduerak erantzun behar diote, edozein egoera apendizai eta garapen pertsonala bihurtzeko eta curriculum eta eskola-antolamendua kudeatzeko modu berriak diseinatzeko aukera bilakazeko; kokatutako berrikuntza-prozesuak aktibatze eta, garrantzitsuena, ilusioz eta motibazioz lan egiten jarraitzeko, gizarteari gure zerbitzurik onena eskaintzeko.

2023-2024 ikasturteari begira, aurreko ikasturtean markatutako ildo estrategikoekin jarraituko dugu

- Hezkuntza-lidergoia eta ikastetxeen ahalduntzea sustatzea.
- Hezkuntza-komunitate osoan euskararen erabilera eta garapena sustatzeko estrategia berriak bultzatzea.
- Ikastetxearen plan digitala garatzea, ikastetxe bakoitzaren beharrei erantzunez.
- Aktiboki lan egitea eskola inklusibo, askotariko eta ikasle guztien beharretara egokitutako baten alde.



I. IKASTEGIKO JARDUERA PLANIFIKATU ETA ANTOLATZEKO TRESNAK

Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 legearen arabera eta irailaren 11ko 229/2007 Dekretuaren arabera, beren jarduera antolatzekeo tresnak prestatu, onartu eta burutzeko egiten duten ahaleginaren bitartez mamitzen dute ikastegieke beren autonomia.

Eskola antolatzekeo tresnen artean, honako haueke nabarmen daitezke:

- 1) Ikastegiaren hezkuntza-proiektua eta curriculum-proiektua.
- 1) Antolakuntza- eta jarduera-araudia (AJA)
- 2) Ikastetxearen Urteko Plana
- 3) Urteko Memoria

Ebazpenaren lehenengo kapitulu honetan plangintzaren alderdiak azalduko dira, eta ikasturte honetan kontuan izan beharreko lehentasunak edo gutxieneko ezaugarriak ezarriko.

Jasangarritasun-irizpideak

Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) barne biltzen dituen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda berriarekin bat etorri, eta 2030erako Euskadiko Jasangarritasunareko hezkuntzako Estrategia garatzen jarraitzekeo, ikastetxeeke modu sistematikoan printzipio ekosozial eta hezitzaileak beraien eguneroko jardunean txertatu behar dituzte.

Ildo horretan, beharrezkoa da ikastetxeeke jasangarritasunerako konpromiso propioak zehaztea, bai euren Curriculum Proiektuari dagokionez, bai kudeaketa eta partaidetza komunitarioko jardunbideei dagokienez. Horrek berekin dakar, halaber, jasangarritasunaren aldeko helburuak eta jarduerak sartzea hezkuntza-antolaketako dokumentuetan (IHP, ICP, AJA, IUP...).

Jasangarritasunaren kultura hezkuntza-komunitateetan integratzeak dakar, batez ere, ikasleengan beharrezkoak diren gaitasunak eta konpromisoaren garapena, arazo ekologiko eta sozialen aurrean; tokiko esparruan eta esparru globalean, ikastetxekeo eta tokiko ekintza eraldatzaileak bultzatuz, bai banakakoak, bai taldekoak, orain eta etorkizunean.

Berdintasun-irizpideak

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearekin (otsailaren 18ko 4/2005) bat etorri, ikastetxeeke bultzatu beharreko hezkuntza-eredueke, betiere, honako helburu haueke izan behar dituzte: sexuaren araberako estereotipoak eta rolak baztertuko dituen garapen integrala eskaini behar dute, bereizkeria mota oro baztertu eta generoak baldintzatu gabeko orientazio akademiko eta profesionala bermatu. Horiez gain, genero indarkeriaren prebentziara zuzenduta egon behar dute, hots, sexismoan oinarritutako edozein indarkeria prebenitzera.

Ildo horretan, ikastetxeeke bere berdintasun-konpromisoak zehaztu behar dituzte beren hezkuntza- politikan, kulturen eta jardunbideetan. Horrenbestez, ikastetxeeke berdintasuna sustatzera eta genero- indarkeria prebenitzera bideratutako helburu eta jarduera horieke beren hezkuntzako antolamendu- dokumentuetan jaso behar dituzte.

Ikastetxeeke hezkidetzara eta genero-indarkeria prebenitzera zuzendutako proiektuak garatuko dituzte, eta irakasgai guztien curriculumaren diseinuan eta garapenean txertatuko dituzte aipatutako Legean eta II. Hezkidetzeta Planean («[EAEko hezkuntza sistemarako II Hezkidetzeta-Plana, berdintasunaren eta tratu onaren](#)



[bidean 2019-2023»](#)) jasotako helburuak.

1.- IKASTEGIAREN HEZKUNTZA-PROIEKTUA ETA CURRICULUM-PROIEKTUA

Bi proiektuak elkarri oso lotuta daude eta ikastegiaren autonomia pedagogikoa adierazten dute: eskola-komunitateko sektoreek hezkuntza-aukera baten alde egiten duten apustua (hezkuntza-proiektua) eta horrek irakaskuntzan duen adierazpena (curriculum-proiektua).

Antolaketako bi tresna horiek eskola guztiek izan beharko dituzte, eta beti izango dira hobegarriak eta aldizka berrikusi beharrekoak. Ikastegi bakoitzak erabakiko du, bere aukeren, premien eta lehentasunen arabera, zein arlori emango zaion lehentasuna eta zenbat sakonduko den horietako bakoitza.

Ikastegi bakoitzak ahal beste zehaztu eta garatuko ditu ikastegiaren hezkuntza- eta curriculum-proiektuak burutzeko hartzen dituen erabakiak. Eskatzen dena da erabaki horiek idatziz jasotzea, ikasturtean zehar zenbateraino gauzatu diren zehaztea, eta gogoeta-prozesuaren emaitzatzat ez ezik, gero egin beharreko urratsen oinarritzat ere hartzea.

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 48.2 artikulua dioenaren arabera, irakasle-talde guztiak eta irakasleak ikastegiaren heziketa-proiektuari (IHP) eta curriculum-proiektuari (ICP) loturik egongo dira. Proiektu horiek errespetatuz, eskolako jarduerak lantzeko eta programatzeko egoki irizitako erabakiak hartu ahal izango dituzte irakasleek, betiere IHPk eta ICPk ezarritako jarraibideen ildotik irten gabe.

Hezkuntza-proiektua egiten laguntzeko, Hezkuntza Sailak gida bat argitaratu du: *“Ikastegiaren Hezkuntza Proiektua prestatzeko Gida”*.

Hezkuntza-proiektuaren eta curriculum-proiektuaren bidez definitzen eta bereizten da ikastetxe bakoitza, baina, proiektu horiek definitzean eta helburuak zehaztean, komeni da hiru ikastetxeek elementu komun batzuk jasotzea, Hezkuntza Sailak bere sistema publikoaren lana ezaugarritzeko lortu nahi duen irudia, prestakuntza, ikasle-estiloa eta estilo profesionala kohesionatzeko.

Ikastetxeko Hizkuntza-proiektua

Hau ulertzen da hizkuntza-proiektutzat: ikastegi bakoitzak planifikatzea hizkuntzen irakaskuntzari eta, kasu honetan, erabilerari, lotutako alderdi guztiak, hizkuntza-testuingurura egokituz kudeaketa-proiektua.

Ikastetxe guztiek beren IHPa eginda edo eguneratuta eduki behar dute. Lan hori errazte aldera, Sailak hezkuntza-komunitatearen eskura jarri du Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua Prestatzeko Gida.

Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuan euskararen hizkuntza-erabilerari buruzko gogoeta bat jaso behar da hainbat esparru eta figuratan, hala nola ikasleen euskararen erabilera irakasleekin, ikasgela barruan eta kanpoan. Beharrezkoa da irakasleak sentsibilizatzea ikasleengan duten eraginari buruz: euskararen ezagutza eta kalitatearen transmisioan, hizkuntzaren erabileran eta atxikimenduan, beren hizkuntza-ohituretan. Irakasleen hizkuntza-ohiturez ari gara, bai ikasleekin komunikatzeko, ikasgela barruan eta kanpoan, bai lankideen artean. Kontuan izan behar dugu ikastetxeak ez direla soilik hizkuntza-ekosistemarik handiena, baizik eta ikasleen gehiengo handi baten ekosistema bakarra. Hori dela eta, ikastetxearen denborak eta espazioak zaindu behar ditugu, eta euskara hezkuntza-jarduera formalaren eta informalaren ardatz egituratzaile gisa jarri behar dugu.

2.- ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA (AJA)

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastegietako ikasleen eskubideei eta betebeharrei



buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren edo Barne Araubidearen aldaketa ezartzen du laugarren xedapen gehigarrian, eta horretarako sei hilabeteko epea finkatzen du, Dekretua argitaratzen denetik aurrera kontaturik.

Antolakuntza eta Jarduera Araudia (AJA) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza ematen duten ikastegi publikoen agiria da, nahitaezkoa, Euskal Eskola Publikoari buruzko 29. artikulua araberan.

Araudiak honako hauek jaso behar ditu gutxienez:

- Ikastegiaren antolaketa- eta jarduera-egituraren definizioa.
- Hezkuntza-komunitateko kideen arteko bizikidetzeta eta elkarrekiko errespetua eta egoitzaren zein instalazioen erabilera egokia bermatuko duten arauak. Arau horiek, dena den, bat etorri beharko dute 201/2008 Dekretuan ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruz xedatzen denarekin.
- Ebaluazioen gaineko erreklamazioak egiteko araubidea.

Arestian aipatutako dekretura egokitzeko helburuarekin ikastegi publikoek AJA hori alda dezaten, Hezkuntzako Ikuskaritzak eredu orientagarri bat jarri du ikastegi guztien eskura. Halaber, ikastegiek eskuragarri dute goian aipatutako 201/2008 Dekretua aplikatzeko gida ere.

3.- IKASTETXEAREN URTEKO PLANA

Ikastegiek Urteko Plana egingo dute ikasturte bakoitzaren hasieran, plan hori baita ikastegiko jarduerak planifikatzeko, antolatzeko eta kudeatzeko tresna. Plana urriaren 30a baino lehen prestatu eta onartu beharko da.

Zuzendaritza-taldearena da ikastegiaren urteko plana prestatzeko lana koordinatzeko ardura; horretarako, kasu bakoitzean dagokion kide anitzeko organoa izango du. Ikastegiko ordezkari organo gorenak onartu beharko du plan hori, irakaskuntza-jardueren programari dagokionez Euskal Eskola Publikoari buruzko Legean klaustroari esleitzen zaizkion eskumenak alde batera utzi gabe.

Ikastetxeek ikasturte hasieran prestatuko dute 2023-2024 ikasturterako IUPa, ikastetxearen jarduerak planifikatzeko, antolatzeko eta kudeatzeko tresna gisa, eta Hezkuntza Ikuskaritzaren esku jarriko dute urriaren 31 baino lehen Sailaren webgunean dagoen «Hezkuntza Ikuskaritza / Dokumentuak» plataforma informatikoaren bitartez.

Ikastetxearen Urteko Plana laburra eta zehatza izango da, plan erabilgarri eta praktikoa izan dadin ikastetxearentzat berarentzat, eta Hezkuntza Sailaren webgunean aurki daitekeen gidan jasotako gomendioei jarraituko die. Helburuak, arduradunak, adierazleak eta neurtzeko eta ebaluatzeko metodoak jasoko ditu.

Planak atal hauek izan behar ditu:

a) Irakaskuntza-jardueren programa

Irakaskuntza-jardueren planak osagai hauek izango ditu: ohiko irakaskuntza-jardueren plana eta irakaskuntza-jarduera osagarrien plana. Klaustroari dagokio programa hori egitea eta, hala dagokionean, hark eskuordetu dezakeen batzorde bati.

Jarduera-plan horretan bilduko dira ikastegiaren eta eskola-jardueraren ikasturteko antolaketarako eta funtzionamendurako hartutako erabakiak eta irizpideak, baldin eta lehenengo aldiz proposatzen badira, edo



egoeraren araberakoak badira. Erabaki eta irizpide horiek ezartzerakoan, ikasleen beharrak eta erabilgarri dauden baliabideak hartuko dira kontuan. Ez badira lehen aldiz proposatzen, ikastegiko jarduera planifikatzeko eta antolatzeko beste dokumentu batzuetan jasoko dira; normalean, Antolakuntza- eta jarduera-araudian (AJA). Erabaki eta irizpide horien honako adibide hauek aipa ditzakegu:

- Ebaluazioen egutegia, datak eta antolaketa
- Irakasleei eginkizunak esleitzea, ikastegian igaro beharreko orduak banatzea, tutoretzak banatzea...
- Familiekiko komunikazioa
- Ikasleak taldekatzea
- Hezkuntza-laguntza eta -osagarria antolatzea
- Irakasle-taldeak koordinatzea
- Espazio komunak banatzea
- Baliabide didaktikoak antolatzea

Ikastegiak Hezkuntza Sailaren esperientzietan eta programetan parte hartzen duenean, horiek ere jasoko dira, bai eta ikastegiak sustatuta ikasturtean zehar gauzatuko diren proiektuak ere, batez ere Hezkuntza Sailak, Euskal Autonomia Erkidegoko beste sail eta erakunde batzuek edo estatuko edo Europar Batasuneko erakundeek onartutakoak.

Azkenik, langileen prestakuntzarekin eta garapenarekin lotutako alderdiak ere jasoko dira (ikastegiaren prestakuntza-plana, irakasleen parte-hartzea ikastegiko prestakuntza-jardueretan eta haren proiektuekin lotutako jardueretan, ikastegitik kanpo gauzatzen badira ere...).

b) Jarduera osagarrien programa

Ikastetxeak antolaturiko hezkuntza-jarduerak dira, ikastetxeko Curriculum proiektuarekin, eta ondorioz, Urteko Planarekin, lotura zuzena dutenak. Orobat, egiten diren une, gune edota erabiltzen diren baliabideengatik, ohiko eskola-orduetatik desberdintzen diren jarduerak dira.

Jarduera osagarriak planifikatzean, helburuak, arduradunak, noiz eta non egingo diren eta ikasleek nola parte hartuko duten zehaztuko da. Alderdi edo ondorio ekonomikoek urteko kudeaketa-programan agertu beharko dute.

Ikastetxe batek jarduera osagarriak planifikatzen dituenean, ikasle guztiak hartu behar ditu kontuan, hezkuntza-premia bereziak dituztenak barne. Guztiek dute jarduera horietan parte hartzeko eskubidea, eta, beraz, aldeztatik aurrekusi beharko da eta, ikastetxearen berezko baliabideak (irakasle eta hezkuntza arloko profesional guztiak) kontuan hartuta, egokienak aukeratu beharko dira, inor kanpoan gera ez dadin.

Jarduera osagarriak Urteko Planean jaso beharko dira, eta, halakorik ez badago, OOGk onartu beharko ditu aldeztatik, eta Plan honetan sartu.

Besteak beste, honako hauek hartu behar dira kontuan:

- Egonaldiak barnetegi-erregimenean
- Ikastegiko jaiak
- Hezkuntza-kanpaina bereziak
- Gelaz kanpoko jarduerak: bisitak, landa-lanak...
- Irteerak, ikasturte amaierako bidaiak, ikasle-trukeak...

Zuzendaritzak, edo hark eskuordetzen duen pertsonak, etengabe eguneratutako erregistroa egingo du



ikasleek eskola-orduetan egiten dituzten irteerei buruz, bai eta ikastetxean edo ikastetxetik kanpo egiten dituzten jarduera soziokulturalei buruz ere. Erregistro horretan, helburuak, inplikaturako ikasleak eta irakasleak, noiz eta non egingo diren zehaztuko da. Gainera, joan-etorriak jasangarritasun-irizpideen arabera programatu behar dira. Erregistro horrek ikastetxean egon beharko du, Ordezkaritza Organo Gorenaren eta Ikuskaritzaren eskura.

18 urte beherakoek beraien legezko tutoreen beraratzte zihurtagiria eraman beharko dute.

– Irakaskuntzako jarduera osagarrien programa

Jarduera osagarri horien artean daude irakaskuntza-arduraldiko orduetan ikasleekin egiten diren jarduera didaktikoak, baldin eta, programazioaren parte izan arren, ohiko irakaskuntza-jardueretatik bereizita badaude, egiten diren uneagatik edo lekuagatik, edo ikastetxearen baliabideengatik edo inplikazioagatik.

Jarduera horiek lotesleak dira ikasleentzat zein irakasleentzat, eskola-orduetan txertatzen baitira osorik edo zati batean.

– Soziokulturaleko jarduera osagarrien programa

Curriculumarekin lotura zuzenik ez duten hezkuntza-jarduerak dira, irakasle-arduralditik kanpo ikasleekin egiten direnak eta parte hartzea borondatezkoa dutenak. Argi dago horiek koherenteak izan behar dutela IHPrekin, ICPrekin eta IUPn formulaturako helburuekin, eta horiek behar bezala garatzeko balio behar dutela. Horregatik, plangintzak/programazioak zorrotza izan behar du eta horietan oinarrituta egon behar du.

c) Prestakuntza Plana

IUP-ren zati hau egitea zuzendaritza-taldeari edo batzorde pedagogikoari dagokio, eta OOGk onartu behar du. Plan horrek barneko ebaluazioen emaitzak aztertu ondoren hautemandako beharrei eta proposaturako hobekuntza-helburuei erantzungo die, eta egingo diren prestakuntza-ekintzak eta horien plangintza jasoko ditu.

Plana diseinatzeko, garrantzitsua da ikastetxeek alde zuzenetik hausnartzea zer eremutan sakondu behar duen planak, lehentasunak ezar daitezkeen prestakuntza-ekintzetan, ikastetxeen beharren eta interesen arabera.

Lehentasuneko helburuen artean, irakasleei eta ikasleei behar besteko gaitasun teknologikoa eman beharko zaie, bi kolektiboen arteko lan digitalaren lotura bermatzeko. Helburu hori lortzeko, garrantzitsua da ikastetxeetako ikaskuntza-irakaskuntzako eta ebaluazioko prozesuetan teknologia digitalaren erabilera sustatzea. Horregatik, material berriak sortzera, hezkuntza-komunitateko pertsona guztien gaitasun digitalera, azpiegitura berriak garatzera eta ikaskuntzaren eraldaketa digitalerako praktika aurreratuak hartzera bideraturako ekintzak bultzatuko dira.

Planak honako hauek jasoko ditu:

- Prestakuntza-proiektuak.
- Egingo diren prestakuntza-ekintzak eta horien plangintza (parte-hartzaileak, arduradunak, datak eta ordutegia).

IUPn jasotako prestakuntza-jardueretan, irakasleen parte-hartzea nahitaezkoa izango da, eta haren erregistro bat eraman beharko da. Gomendatzen da zuzendaritzak, ikasturtearen hasieran, irakasle guztien



aldi bereko egonaldiak planifikatzea, batera egotea eskatzen duten prestakuntza-lanak egiteko.

Prestakuntza-plana hezkuntza-komunitateko kide guztientzat egongo da zabalik, eta irakaskuntza-jardunean eta irakaskuntzaz kanpoko jardunean izango duen eragina izango du helburu, ikasleen irteera-profila eskuratzeko eta barneko eta kanpoko ebaluazioetako emaitzak hobetzeko.

a) Urteko kudeaketa-programa

Atal honetan alderdi hauek bil daitezke:

- Onartutako aurrekontuaren betetze-maila: horretarako, aski da orri batean aurrekontuko partidak jasotzea, eta une horretara arte zenbat diru erabili den (egindako gastuak). Ekonomia kudeatzeko aplikazio informatikoak berak ematen du dokumentu hori.
- Hurrengo aurrekonturako gastu-irizpide eta -aurreikuspenak; batez ere, funtzionamenduarekin lotuta ez dauden gastuei dagokienez: ekipamendua, prestakuntza, obra txikiak eta abar.

Aurrekontu ekonomikoa Hezkuntza Sailak ezarritako epearen barruan egingo da.

4.- URTEKO MEMORIA

Ikastaroa amaitutakoan, zuzendaritza-taldeak urteko memoriaren idazketa koordinatuko du, klaustroaren ezinbesteko parte-hartzearekin. Memoria egiteko, IUParen azterketa eta betetze-maila hartuko dira kontuan, baita ikasleen emaitza akademikoak ere. Autoebaluazioa hurrengo IUPren oinarria izan beharko da (batez ere bertan jasotako helburuei eta lehentasunei dagokienez).

OOGk onartu beharko du urteko memoria, eta ikastetxeak Hezkuntza Ikuskaritzaren esku jarriko du irailaren 30a baino lehen, «Hezkuntza Ikuskaritza/Dokumentuak» plataforma informatikoaren bidez.

Labur eta zehatz egingo da, ikastetxearentzat berarentzat praktikoa izan dadin, Hezkuntza Sailaren wbgunean aurki daitekeen gidaren gomendioei jarraituz.

II. IRAKASLEEN ANTOLAMENDUARI LOTUTAKO ALDERDIAK

1.- URTEKO LANALDIA

Lanaldi-motak eta egutegia gorabehera, irakaskuntzako langileen dedikazioa 1.462 ordukoa izango da. Ebazpen honek arautzen du asteko lanaldia zenbat ordukoa den, eta nola banatuko diren curriculumak betetzeko orduak, ordutegi osagarria eta irakasleek ikastetxean eman beharreko orduak.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzeko den uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuaren 34. artikuluan adierazitakoaren arabera, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 50. artikuluari jarraikiz, irakaskuntzako funtzionarioek urte natural bakoitzean hogeita bi egun balioduneko oporrak izateko eskubidea izango dute, edo, urtean zerbitzuan ematen duten denbora txikiagoa bada, proportzionalki egokituko litzaizkiekeen egunak. Oporrak kontatzeko, larunbata ez da egun balioduntzat joko.

Aipatutako oporraldia zehaztuko da era orokorrean, urtero abuztuko hilabetearen zehar, inolaz ere iraileko hilabetearen egunak kontuan izanda. Iraileko lehenengo laneguna, irakasleri oro dagokion ikastetxe eta



lanpostuan egon beharko da.

Oporraldia eten egin ahal izango da tarte horretan gaixoaldi edo istripuren bat gertatuz gero, eta interesdunak oporraldiarekin jarraitzeko aukera izango du gorabehera gainditu eta medikuaren senda- agiria jaso ostean. Hartu gabe geratzen diren opor-egunak aldi bakarrean hartu beharko dira; ahal dela, eskolarik ez dagoenean.

2.- ASTEKO LANALDIA

Ikastegiaren antolaketa errazteko eta betiere haren autonomia errespetatuz, irakasleen eginkizunak, modalitateak eta arduraldi-ordutegiak zehaztuko dira jarraian, klaustroa osatzen duten pertsonen aniztasuna eta premia espezifikoak jasoz.

2.1. Arduraldi arrunta duten irakasleak

Irakasleek ikastegian duten zuzeneko arduraldi arrunta astean 30 ordukoa izango da. Astean 23 ordu izango dira ikastegian egotekoak. Ordu horien barruan irakaskuntza-arduraldikoak egongo dira; hau da, ikasleekin harreman zuzena izateko orduak. Irakaskuntza-arduraldiko orduen barne egongo dira espezialitateko curriculumaren irakaskuntza-orduak, hezkuntza-sendogarrirako orduak, ikastegiaren hezkuntza-proiektuan ikasleen parte-hartzerako onartuta dauden proiektuetako jardueretan ematen diren orduak eta hezkuntza-arretako orduak. Horrez gain, kontuan hartuko dira ikasleen gurasoei arreta emateko sartzen diren orduak, sail didaktikoaren edota koordinazio pedagogikoaren bileretan ematen diren orduak, prestakuntza-jardueretan ematen direnak eta ikastegiaren hezkuntza-proiektua garatzeko edozein jardueratan ematen direnak.

Ikastegiari eskaini beharreko lanean sartzen diren asteko 7 orduak hileru zenbatuko dira, eta sail bakoitzeko jarduerak areagotzera bideratuko dira; ordu horietan, adibidez, honako hauek egin ahal izango dira: kide anitzeko organoen bilerak, ebaluazio-batzarrak, ikastegiko plangintza eta antolaketa baliabideen prestakuntza, irakasleen koordinazio-bilerak, ikastegiko Hizkuntz Proiektuen Batzordeari dagozkion zeregin batzuk, epaimahaiantzako laguntza, ikastegiaren esparruari dagozkion ekintza kulturalak, entzunaldiak, ikerketak eta argitalpenak, eta beste ekintza osagarri eta eskolaz kanpoko batzuk. Ikastegiari zuzenean eskainitako ordu horiei dagokienez, zuzendaritzak denbora jakin bat ezarri ahal izango du irakasle guztiak batera egon daitezen, hau da, koordinazio-lanak egin behar direnean irakasle guztiak batu daitezen. Irakasle guztiek aldi berean eskolan egoteko tarte horiek ikasturte hasieran erabaki behar ditu zuzendaritzak, eta denborak hilabeteka edo asteka ezarri ahal izango dira. 7 ordu horien banaketa eta plangintza zehatza ikastegiaren urteko memorian jasoz behar da.



IRAKASLEEN LANALDIAREN LABURPEN-TAULA

1462 ordu urteko lanaldia	30 ordu astean, ikastetxeari zuzenean dedikatu beharrekoak	23 ordu astean, ikastetxean egon beharrekoak	20 ordu astean	17 ordu astean	eskola-orduak
				3 ordu astean	Ikasleei arreta
		3 ordu astean	Saileko bilera Koordinazio-bilera Material didaktikoa antolatzea Hezkuntza-arreta (guardiak)		
	7 ordu astean Jarduerak osagarriak (ez dira nahitaez ikastetxean egon beharrekoak)	Prestakuntza (1 ordu) Sailaren jarduerak Ezohiko klaustroak Ebaluazio-batzarrak Hizkuntza-normalizazioko proiektuak Berrikuntza-proiektuak Nazioartekotzea Ekintzailletza Ikerketa Sarbide-probak Kanpo-komunikazioa			
Urteko lanaldia osatu arteko gainerako orduak	Programazioak prestatzea Azterketak zuzentzea Lanbide-hobekuntza Beste irakaskuntza-jarduera batzuk				

Ordutegiko gainerako orduak, ikastegiari zuzenean eskaintzekoak ez direnak, berriz, irakaslan prestatzeko, azterketak zuzentzeko, irakaslea profesionalki trebatzeko eta irakaskuntzari lotutako beste hainbat gai lantzeko erabiliko dira.

Astean zehar banatuko dira ikastegian eman beharreko ohiko orduak, astelehenetik ostiralera, betiere hiru orduko gutxieneko lanaldia betez egunero. Egunean, irakasleek 5 eskola-ordu eman ditzakete, gehienez.

Dena delakoagatik irakaslearen ordutegiak irakaskuntza-arduraldiko ordu gutxiago baditu oro har ezarrita dauden orduak baino, zuzendariak ordutegia luzatuko dio irakasleari, ikastegian eman beharreko 23 orduak osatu arte, kasu guztietan.

2.2. Irakaskuntzaz kanpoko lanak (liburutegia, ikus-entzunezkoak, zuzendaritzari laguntzea, kalitatearen kudeaketa, hizkuntza-normalakuntza, IKTen administrazioa eta antzeko beste batzuk)

Ikastegi bateko irakasle bat irakaskuntzaz kanpoko jardueraz bakarrik arduratzen bada, 30 ordu egin behar ditu astean, salbu eta zerbitzu-eginkizunetan dagoen osasun-arrazoiengatik; egoera horretan dauden irakasleek 23 ordu egin behar dituzte astean.

Irakasle batek lanaldiaren zati bat ematen badu irakaskuntzaz kanpoko jardueretan, ordu eta erdi eman



behar du eskola-orduei kendutako ordu bakoitzeko. Hortaz, ikastegian eman behar dituen asteko 23 orduetako ordu erdi gehitu behar zaie irakaskuntzaz kanpoko jardueretan ematen duen ordu bakoitzeko, betiere asteko 30 orduko mugaren barruan.

Zuzendariak erabakiko du liburutegia irekitzeko eta ixteko ordutegia, zerbitzua ematen dauden langileen lan-eskubideak kontuan hartuta eta errespetatuta

Ikastegiaren antolamendu orokorrak bide ematen badu, ikastegiko zuzendaritza-taldeak gainerako irakasleen ordu batzuk esleiti ditzake irakaskuntzaz kanpoko jardueretarako, eta hezkuntza-arretako orduak erabilita konpentsatu. Aurrez, gainerako zerbitzuak behar bezala ematen direla ziurtatu behar du.

2.3. Lanaldi-murrizketa duten irakasleak

Lanaldi-murrizketa familia eta lana bateragarri egiteko eskatu bada, ikastetxeetako zuzendaritzek, oro har, ahal duten guztia egingo dute interesdunaren lan-ordutegiak eskatutako kontziliazioari erantzun diezaion, betiere horrek ikasleen arretan eragin negatiborik ez badu; nolahi ere, beharrezkoa den koherentzia pedagogikoa eta antolaketakoa bermatu beharko da.

Lanaldiaren erdiaren murrizketa

Lanaldi efektiboa 1/2 murriztuz gero, irakasleek astean 15 orduko lanaldia izango dute, eta horietatik asteko 11 ikastegian eman beharko dituzte. Bai ordu horiek, bai ikastetxean egoteko gainerako 4 orduak –asteko lanaldia osatzen dutenak–, bai ikastetxean zuzenean dedikatzen ez diren gainerako orduak 2.1. atalean aipatzen diren zereginetara bideratuko dira, eta arreta berezia jarriko da prestakuntza-denboran, zuzendaritzak hala irizten badiu.

Lanaldiaren herenaren murrizketa

Lanaldi efektiboa 1/1 murriztuz gero, irakasleek astean 20 orduko lanaldia edukiko dute, eta horietatik 15 ikastegian eman beharko dituzte. Bai ordu horiek, bai ikastetxean egoteko gainerako 5 orduak –asteko lanaldia osatzen dutenak–, bai ikastetxean zuzenean dedikatzen ez diren gainerako orduak 2.1. atalean aipatzen diren zereginetara bideratuko dira, eta arreta berezia jarriko da prestakuntza-denboran, zuzendaritzak hala irizten badiu.

Irakasleen ordutegia: lanaldiaren herena

Irakasle horien ordutegia astean 10 ordukoa izango da, eta horietatik 8 irakaskuntza-arduraldikoak izango dira. Ordutegi horrek titularrarena osatu beharko du, ikasleen arreta bermatuta gera dadin.

Osasun-arazo larriengatik lanaldi-murrizketa duten irakasleak

Osasun-arazo larriak dituzten eta lanaldiaren herena murriztuta duten irakasleek astean 6 ordu murriztu ahal izango dituzte zuzeneko irakaskuntzako orduak. Murrizketa horrek ez du esan nahi ikastetxean egoteko ordutegia murriztuko denik. Murrizketa-ordu horiek zereginak egiteko, liburutegia zaintzeko, eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak antolatzen laguntzeko, hezkuntza-arretako lanetarako eta ikastetxeko zuzendaritzak agintzen dizkion antzeko lanetarako erabili beharko ditu. Jarduera horietan ematen diren orduak ordutegi pertsonalean jasoko dira.

2.4. Gaixotasun kronikoa duten senitartekoei arreta emateko baimena duten irakasleak

2. mailara arteko senidea zaintzeko baimena – Indarrean dagoen akordio arautzailean jasoa – duten



irakasleek 50 ordura arteko baimen ordaindua izango dute ikasturte bakoitzeko.

Baimen hori ikastetxeko zuzendaritzarekin koordinatuta baliatu beharko da, eskatzaileak ematen duen zerbitzuaren beharrak estalita gera daitezen eta, gauzatzeko orduan, koherentzia pedagogikoa eta antolamendukoa bermatu beharko da.

Irakasleen ordutegiak egitean, curriculumaz ez emateko orduak banatzeko, baimen hori eman zaien pertsonak adierazitako beharrak hartuko dira kontuan. Baimen horrek ez du esan nahi aurrez ezarritako ordutegia aldatzeko eskubidea izango denik.

Eskatzailea eta ikastetxeko zuzendaritza ez badatoz bat egun horiek hartzeko erabakiarekin, eta interesduna ez badago ados zuzendaritzaren erabakiarekin, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dio Hezkuntzako lurralde-ordetzariari, eta hark ebatziko du erreklamazio hori, Hezkuntza Ikuskaritzak txostena egin ondoren.

2.5. Arau orokor horren salbuespenak

Zuzendaritzako karguak dituzten irakasleek karguan aritzeko orduak har ditzakete hezkuntza-arretako orduen ordezkari baldin eta horretarako biderik badago eta beste irakasleen artean egiten badituzte hezkuntza-arretako ordu guztiak.

Sail bateko irakasleek beste sail bateko irakasgaiak ematen badituzte, zuzendariak baimena eman diezaieke hezkuntza-arretako ordu bat kentzeko eta ordu hori beste saileko bileretara joateko erabiltzeko.

Irakasleren baten asteko eskola-orduen kopurua handiagoa bada oro har xedatutakoa baino, hezkuntza-arretako ordutegitik kenduko zaizkio soberako orduak.

Zuzendaritzak irakaslearen hezkuntza-arretako orduak beste jarduerara espezifiko batzuekin trukatu ahal izango ditu, baldin eta hori posible bada eta hezkuntza-arretako ordu guztiak erabat betetzen badira.

Zerbitzu-beharrak direla-eta irakasleak bi kargutan jardun behar duenean, hezkuntza-arretako orduak bigarren karguaren zereginak betetzeko orduekin ordezkari dira, baldin eta hori posible bada eta hezkuntza-arretako ordu guztiak erabat betetzen badira. Ordainsariari dagokionez, kargu bietako bati bakarrik dagokion osagarri espezifiko jasoko da; irakasleak erabakiko du zein.

Ezin izango da aurreko paragrafoetan adierazitako hezkuntza-arretako salbuespenik baimendu, horrek beste irakasleren batek astean hezkuntza-arretako ordu gehiago egin beharra badakar.

Ikasleak ikastegian dauden ordutegian, hezkuntza-arreta berezia eskatzen duen egoerarik sortzen bada, ikastegiko zuzendariak irakaslearen hezkuntza-arretako orduak gehitu ahal izango ditu, behar adina.

Lan jakin batzuk egiteko, irakasle batzuen irakaskuntza-arduraldiko orduak murrizteko baimenak emango ditu Ikastegien Zuzendaritzak, idatziz, alde aurretik Ordezkaritza Organo Gorenaren aldeko txostena jaso ondoren.

2.6. Errelebu-kontratuko irakasleak.

Indarreko legeriari jarraituko zaio, eta, hala badagokio, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak gain honi buruz emandako gidalerroei.



3.- IRAKASKUNTZA-JARDUERAREN ANTOLAKETARI LOTUTAKO ALDERDIAK

3.1. Ordutegi orokorra

Orokorrean, musikako oinarrizko kontserbatorioko eta kontserbatorio profesionaletako eskola-orduak astelehenetik ostiralera bitarte banatuko dira, baita irakasleenak ere. Ikastegia asteko beste egun batzuetan ireki nahi izanez gero berezko hezkuntza-jarduerak egiteko, baimena eskatu beharko da.

3.2. Irakasgaien eta taldeen banaketa

Irakasgaien eta orduen esleipena egitean, honako hauek hartuko dira kontuan: irakaskuntzako esleipenak eta funtzioak arautzen dituzten arauak, langilea atxikita dagoen lanpostua, zuzentasun irizpideak, irakaskuntza kalitatezkoa izateko irizpideak, eta nahitaez bete behar diren beste irizpide eta arau hauek:

- Irakasgai eta espezialitate guztien ordu kopurua zenbatuko da, eta espezialitate horien irakasleei esleituko zaizkie.
- Irakasleek beren espezialitateko irakasgaiekin osatu ahal badituzte beren ordutegiak, halaxe egingo dute, eta ez zaie beste espezialitate bateko irakasgairik esleituko. Hori horrela egiteko behar beste ordu ez badago, beren titulazioen arabera eman ditzaketen irakasgaiekin osatuko dira ordutegiak, bat etorri Ekainaren 14ko 428/2013 Errege Dekretuarekin (ekainaren 15eko BOE).
- Ikasleak euskaraz ikasi nahi duela adierazten badu –idatziz egin behar du eskaria–, zuzendaritza-taldeak saiatu behar du eskaera horri erantzuten, ahal den neurrian, eta, horretarako, hizkuntza-eskakizuna betetzen duten irakasleak edo hizkuntza-gaitasun nahikoa duten irakasleak esleitu behar dizkio eskaria egin duen ikasleari.
- Era berean, ikasleak eskatzen badu instrumentu osagarria aldatzeko, zuzendaritza-taldeak onar dezake, betiere eskaera justifikatuta badago.
- Eskolak euskaraz eta gaztelaniaz jaso nahi dituzten taldeak daudenean, HE2ko lanpostuak dituzten irakasleek ezin izango dute klaserik eman gaztelaniaz irakatsi beharreko taldeetan, harik eta erabat bete arte beren espezialitateko orduak, euskarazko taldeei edo euskaraz irakatsi beharreko irakasgaietakoak.
- Hala ere, ikastegiak beharrik badu, IRALE programaren bidez edo Sail honek diruz lagundutako beste ikastaroren baten bidez 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten irakasleek euskarazko eskolak eman ditzakete, haien lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna 1.a izanda ere.
- Irakasle batek irakaskuntza-kompetentzia nahiko duela ulertuko da egiaztatzen badu irakaskuntza-esperientzia duela musika-arloko espezialitatearen batean.
- Irakaskuntza-kompetenziaren figura aplikatuta irakasle biren arteko berdinketa gertatzen denean, ikastegiko zuzendaritzak beste irizpide bat hartuko du kontuan: irakaslearen egokitasuna.
- Irakasle batek ezin izango ditu inoiz bere espezialitatekoa ez den irakasgai bateko orduak hartu, irakaskuntza-kompetentzia duela frogatu arren, baldin eta espezialitate horretakoa den irakasleren batek ordu horiek behar baditu.
- Azkenik, espezialitate bateko irakasleek eta beste espezialitate batzuetako irakasleek eman ezin



dituzten irakaskuntza-orduekin eratuko dira ikasturte hasierako esleipen-prozesuan eskainiko diren lanpostu hutsak. Lanpostu huts horiek eratzeko, irizpide hauek hartuko dira aintzat: ahalik eta koherentzia pedagogikorik handiena lortzea; ahalik eta espezialitate partekatu gutxien izatea; irakasgaietako curriculumak hurbil egotea; irakasgai horietako bakoitzak ez izatea, aldi berean, espezializazio-maila handiegirik; ahalik eta maila-kopurua gutxiago egotea, eta abar.

Adierazitakoa errespetatuz, eta Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 36.2.f eta 41.c artikuluetan xedatutakoaren arabera, ikasketa-burutzak irakasle bakoitzari eman behar dituen kurtsoak eta taldeak esleituko dizkio, kontuan harturik ikastegiko zuzendaritza-taldeak ezarritako irizpideak. Nolanahi ere, ikasketa-burutzak beti errespetatu beharko du indarreko legeriak dioena irakasleei irakasgaiak esleitzeari buruz.

Ikastegiko zuzendaritzak legezko eskumena du eskolak irakasleen artean banatzeko, ikastegiaren antolamendu hoberenari eta ikasleen beharrei begirako moldakortasun- eta egokitasun-printzipioak kontuan hartuta, eta sailen eta irakasleen proposamenak entzun eta gero.

3.3. Ordutegiak egitea

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 36.2.f eta 41.c artikuluetan xedatutakoaren arabera, ikasketa-buruak irakasle bakoitzari esleituko dizkio eman behar dituen kurtsoak eta taldeak, kontuan harturik ikastegiko zuzendaritza-taldeak ezarri eta klaustroari jakinarazitako irizpideak.

3.4. Ikastegiko ordutegia onartzea eta publiko egitea.

Ikasketa-burutzak prestatu eta zuzendaritzak onartutako ordutegia bete behar dute, nahitaez, irakasleek. Erreklamaziorik badago, hezkuntzako lurralde-ordezkariek ebatziko du, Hezkuntza Ikuskaritzak alde aurretik txostena egin ondoren.

Ikastetxearen ordutegia une oro agerian, ongi ikusteko lekuan, eduki behar da beti, irakasle-gelako eta ikasketaburuaren bulegoko iragarki-tauletan eta ikastetxeko estamentu guztientzat ikusgai dagoen beste leku batean. Halaber, zuzendaritza-kargu bakoitza ikastetxean egongo den ordutegia adierazi behar da bertan.

Informazio hori guztia ikastegiko Ordezkaritza Organo Goreneko kide guztien eskura egongo da eta datu pertsonalak babesteari buruzko araudira egokituta egon beharko du.

4.- ZUZENDARITZA-KARGUAK ETA BESTELAKOAK

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 36. artikuluan xedatutakoaren arabera, zuzendariak, ikasketaburuak eta idazkariak osatuko dute zuzendaritza-taldea.

Hala ere, ordu nahikoa badago eta ikastetxeko Antolakuntza eta Funtzionamendu Araudiak hala aurreikusten badu, beste kargu batzuk sortu ahal izango dira ondoko zuzendaritzarekin batera.

Hezkuntza Administrazioak erabakiko du zer zuzendaritza-karguk izango duten dagokion osagarri ekonomikoa.

4.1. Zuzendaritzako kargudunen ordutegia

Ordutegi orokorrean, aurreikusi behar da ikastegiaren funtzionamendu-denbora osoan beti egongo dela, edo berehala aurkitu ahal izango dela, zuzendaritzako kargudunen bat.



Zuzendaritza-taldea astean behin bilduko da gutxienez, beren eskumenak batera eta modu koordinatuan gauzatzeko.

Edozein kasutan, zuzendaritza-taldeek aste bakoitzeko ostegunak gordeko dituzte lan-bilerak edo bilera instituzionalak egiteko.

Halaber, Zuzendariak beren kargu-orduetatik ordu batzuk erreserbatuko dituzte deitzen dituzten bileretan parte hartzeko.

4.2. Zuzendaritzako kargudunentzako murrizketak

Zuzendaritza-karguen ordutegi-murrizketak 39 ordukoak izango dira.

Zuzendaritza-taldeak erabakiko du nola banatu orduak karguen artean, eta Ikuskaritzari jakinaraziko dio.

5.- IRAKASLEEN BERTARATZEA

5.1. Lanorduak betetzen direla kontrolatzea

Irakasleen absentiak "eskola-jardueraren dokumentua/Ordutegi-koadroak" aplikazioaren bidez erregistratuko dira. Horretarako, DAE dokumentuan "irakasleen absentismoa" erlaitza dago. Erlaitz horren barruan, lanera joan ez den irakaslea adieraziko da, absentsia zein egunetan gertatu den, zer iraupen izan duen eta zergatik.

Justifikazio gabeko absentiak direnean, ikastetxearen zuzendaritzak arrazoi hori aukeratuko du EEDren absentsien goitibeherako menuan, eta aplikazioak automatikoki bidaliko dio jakinarazpen bat erreferentziako Ikuskatzaileari; hark dagozkion prozedurei ekingo die, Euskal Funtzio Publikoaren Legean kasu horretarako ezarri bezala. Kasu horietan, irakasleak egoki ikusten dituen alegazioak egin ahal izango ditu Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzaren aurrean, hark azken ebazpena eman dezan.

Lan-baldintzak Arautzeko Akordioan zehaztutako arrazoiez bestelako absentsia justifikatuak gertatzen direnean, ikastetxearen zuzendaritzak arrazoi hori aukeratuko du EEDren absentsien goitibeherako menuan; gainera, irakasle horrek "III ERANSKINA" bete beharko du, beheko estekan dagoena ("Irakasleen / lan-legepeko hezitzaile pertsonalen hutsegiteak"):

<http://www.euskadi.eus/informazioa/araubide-bereziko-irakaskuntzako-ikastetxeen-berariazko-gaiak/web01-a2ikadok/eu/>

Ikastetxearen zuzendaritzaren "III ERANSKINA"ko sinadurak esan nahiko du hark babestu egiten duela bertan ematen den azalpena, hari sinesgarritasuna eta balioa emanez. Eranskin hori ikastetxean artxibatuko da, Hezkuntzako Ikuskaritzaren eskueran egon dadin.

Irakasleen absentsia guztiak behar bezala justifikatu behar dira eta, ahal den guztietan, Zuzendaritzaren aurrean agirien bidez egiaztatu, hark eskatu beharrik gabe eta indarrean den lan-baldintzak arautzeko akordioan ezarritakoaren arabera.

Absentiak justifikatzeko agiriak ikastetxean artxibatuko dira, Hezkuntzako Ikuskaritzaren eskueran egon dadin. Justifikatzeko agiriak eguna, ordutegi-tartea eta absentsiaren arrazoa adierazten dute. Horiek jatorrizkoak eta argiak izan behar dira.



Ezagutu eta aurreikusitako absentzien kasuan, irakasleek denbora nahikoaz eta idatziz jakinaraziko diote ikastetxeko ikasketa-buruzagitzari absentzia horren eraginpeko taldeek zein jarduera egin, zein material erabili eta ordezkariak diren hezkuntza-arretarako irakasleek zein jarduera egoki egin behar dituzten.

Aurreko ikasturteetan egin izan den bezala, ikastetxeko zuzendaritzak hurrengo hilabeteko 5 eguna baino lehen erregistratu behar ditu irakasleen absentziak, Hezkuntzako Ikuskaritzaren eskuan egon daitezten.

Greba egingo balitz, ikastetxeko zuzendaritzak gorabehera hori eta hari buruzko datuak jakinaraziko dizkio Ikuskaritzari “Eskolako Ekintzen Dokumentua (EED)/Ordutegi taulak” aplikazioaren bitartez; bertan, “Irakasleen absentziak” fitxa dago, eta “Grebaren datuak”. Kasu horietan, zuzendaritzak ikasleen al bait arreta onena antolatuko du eskuan dituen giza baliabideen bitartez.

Halaber, ikusiko balitz irakasleren batek bere ordutegiko sartu-irten betebeharrak ageriki urratzen dituela, zuzendaritzak ordutegiari lotzeko errekerituko dio. Bere betebeharrak urratzen jarraituz gero, horiek Lurralde Ordezkaritzako Pertsonalari eta Hezkuntzako Ikuskaritzaren Unitateari jakinaraziko zaizkio, dagozkion neurriak har daitezten.

Irakasleen absentziak behar bezala kudeatzeko, puntu hauek hartuko dira kontuan:

- Irakasleen betebeharra da hutsegitea justifikatzeko agiriak zuzendariari behar unean aurkeztea, errekeritua izatera itxaron gabe.
- Ikastetxetik kanpora, IRALeren eta antzeko beste ikastaro batzuk egiten dabiltzan irakasleek ikastaro horiek egiten ari diren tokietan aurkeztuko dituzte ikastaro horietako absentzia-hutsegiteak justifikatzeko agiriak.
- OOGari jakinarazi egin behar zaio ohiko klase-aldian irakasleen absentziak gertatzean ikasleei ikastetxean arreta emateko zein prozedura ezarri den.
- Klaseak normal emateko orduan gertatutako edozein aldaketa berehala jakinarazi behar zaio Ikuskaritzari telefonoz.
- Absentziak justifikatzeko agiriak ikastetxean artxibatuko dira, Hezkuntzako Ikuskaritzaren eskuan egon dadin. Justifikatzeko agiriek eguna, ordutegi-tartea eta absentziaren arrazoia adierazten dute. Horiek jatorrizkoak eta argiak izan behar dira.

Oraingoz, Lurralde Ordezkaritzetako pertsonalaren unitateekin ikastetxeek kudeatzen dituzten baimen guztiak berdin jarraituko dira kudeatzen unitate horietan sortutako instrukzioen arabera.

Halaber, kontuan hartu behar da Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritza baimenak kudeatzeko prozedurak aldatzen/egokitzen ari dela, eguneroko ordezkapenen kudeaketa telematikoa ezartzearen ondorioz; beraz, aldaketaren bat egitea beharrezkoa balitz, behar unean informatuko da.

Ikastetxe batzuek, irakasleak ez ezik, hezkuntzako lan-kontratudun langileak edo/eta Saileko lan-kontratudunak dituzte. Pertsona horien absentziak erregistratzeko, ikastetxeek haien datuak sartu behar dituzte irakasleen absentziak erregistratzeko erabiltzen den EEDko fitxa beretik.

5.2. Absentzien partea

Ikasketaburutzak absentzien eguneroko parte gordeko du. Parte Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egongo da beti, eta datu hauek jaso beharko ditu gutxienez:

- Irakasleen absentziak eta atzerapenak.
- Ikastetxeko edozein gelatan ikusitako gorabeherak.
- Gertatutako istripuak.



- Irakasleen sinadura

5.3. Baimenak

Beti ere zerbitzuaren premiak kontuan hartuta eta dagokion lurralde-ordezkaritzak baimendu ondoren, karrerako funtzionarioek, lan-kontratu finkoko langileek eta ikasturte osoko lanpostu hutsa betetzen ari diren bitartekoek baimena izango dute honako hauetan parte hartzeko: biltzarrak, ikastaldiak, ikastaroak, mintegiak, symposiumak, topaketak, lehiaketak, elkarrizketak, hitzaldiak, bilerak, jardunaldiak eta bestelako ekitaldi kolektiboak (artistikoak, zientifikoak, tekniko-profesionalak, elkargokoak eta elkarte edo sindikatukoak).

Baimenak dena delako ekitaldia hasi baino gutxienez hogeitau egun lehenago eskatu behar dizkio langileak kontserbatorioko zuzendaritzari, eta ordainduta egongo dira, bost egun ikasturte bakoitzeko, gehienez ere. Muga horretatik aurrerako baimenak ez ditu ikastegiak ordainduko, ezein dela ere kontzeptua (dietak, bidaia-gastuak, egonaldia edo inskripzioa), eta, beraz, interesdunak berak ordaindu beharko ditu.

Baimen-eskaerarekin batera – kontserbatorioko zuzendaritzari zuzendua –, programaren kopia bat edo ekitaldia antolatzen duen entitate edo erakundearen dokumentu bat aurkeztuko da, jardueraren edukia eta datak zein diren azaltzen duena. Gainera, emandako baimen ordaindua erreperatzeko ordutegi bat aurkeztuko da, aurretik ikaslearekin edo legezko ordezkariarekin adostuta (II eta III. eranskinetako ereduak erabiliz).

Kontserbatorioko zuzendariak lurraldeko Hezkuntza Ikuskaritzara bidaliko du gero eskaera, baimen hori emateko edo ukatzeko bere proposamena, ondo arrazoitua, erantsita.

Lurraldeko ordezkariak, Hezkuntza Ikuskaritzaren txostena aintzat hartuta eta aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, onartu edo ukatuko egingo dute baimen-eskaera, zerbitzuaren premiei erreparatuta.

5.4. Jardueretan parte hartzea eta eginkizunak esleitzea

Gogorarazten da nahitaezkoa dela egunerokoak ez diren jarduera programatuetara joatea (klaustroak, sailetako bilerak eta ikastegiko arduraldiaren ordutegiaren barruan antolatutako guztietan).

Ordutegiak bete ezean edo ebaluazio-saioetara, klaustroetara eta deitutako bileretara joan ezean, ikasketaburuak gertaera hori jasoko du falta-agirian, dagozkion administrazio-ondorioetarako.

Ikasle batek baja ematen duenean urtarrilaren 31tik aurrera, edo aurretik, eta baja hori ezin bada bete, zuzendaritzak erabakiko du nola bete beharko duen denbora hori irakasleak beste ikasle batzuekin: atzeraturik dabilzan ikasleekin erreperazio-saioak eginez, aurreratu dabilzanak bultzatuz, eta abar. Ondoren, Hezkuntza Ikuskaritzari jakinaraziko zaio, idatziz, zer erabaki den, berari baitagokio gai horri buruzko kontrola egitea.

6.- KOORDINAZIO PEDAGOGIKORAKO ORGANOKAK

Koordinazio pedagogikorako organoen helburua da jarduera akademiko eta osagarrien koherentzia ziurtatzea, denak ere eraginkorki bidera daitezzen hezkuntza-helburuak lortzeko.

Bi koordinazio-organo egongo dira gutxienez: sailak eta koordinazio pedagogikorako batzordea.



6.1. Sailak

Sail didaktikoak lantaldeak dira, arduradun edo taldeburu batek zuzenduak, eta helburu hau dute: irakasleen arteko koordinazioa bermatzea, izan arlo edo irakasgai bera ematen dutenen artekoa, izan kidetasuneko arlo edo irakasgaietako artekoa. Organo horien zeregina talde osoaren lana denez, egiten dituzten lanak ere taldekide guztien erantzukizuna dira.

6.2. Sailen eraketa

Ikastegiko sailen proposamena egiteko, klaustroak honako arau hauek bete behar ditu ezinbestez:

1. Ikastegian eskola-orduren bat ematen duten irakasle guztiek sail didaktikoren bateko kide izan behar dute.
2. Irakasleek ezin dute izan bi sail didaktikoko kide. Ildo horretan, bi sail didaktikoko edo gehiagotako irakasgaiak ematen dituen irakasleak zein sailetan ematen dituen ordu gehien, haren bileretara joan behar du. Hala ere, parte har dezake ematen dituen gainerako irakasgaien sailen bileretan eta haien lan eta erabaketan.
3. Gehienez ere hamar sailtako buruek jaso ahal izango dute lanari dagokion ordainsari osagarria.
4. Ikastegiak sailen eraketa onartu ondoren, zuzendaritzak dagokion zonaldeko hezkuntza-ikuskaritzara bidaliko du proposamena, goian aipaturiko baldintzak betetzen dituen ala ez egiazta dezan. Betez gero, lurralde-ikuskaritzak oniritzia emango dio proposamenari, eta Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara bidaliko du, dagozkion ondorio ekonomiko eta administratiboak izan ditzan.
5. Ikastegiaren antolaketa eta koordinazio pedagogikoa ziurtatzeko, bere AJAan aurreikusi beste sail didaktiko guztiak eratu ahal izango ditu ikastegiak. Baina, sailburuari ordaintzearen ikuspuntutik, honako hauek bakarrik antolatzeke eskubidea izango du, betiere gutxienez bi irakasle espezifiko badituzte horietako bakoitzerako:
 - I. Hari Instrumentuen Saila, honela zatitu daitekeena:
 - Biolina, Biola, Biolontxelo eta Kontrabaxua.
 - Arpa, Gitarra, Zia Instrumentuak eta Hari Pultsatuko Instrumentuak.
 - II. Haize Instrumentuen Saila, honela zatitu daitekeena:
 - Flauta, Oboea, Klarinetea, Fagota, Saxofoia, Txistua eta Moko-txirula.
 - Tronpeta, Tronpa, Tronboia eta Tuba.
 - III. Tekla Instrumentuen Saila, honela zatitu daitekeena:
 - Pianoa.
 - Piano osagarria.
 - Organoa eta Klabea.
 - IV. Pianista eta Klabezinista Errepertoristen Saila.
 - V. Akordeoi eta Perkusio Saila, honela zatitu daitekeena:
 - Akordeoia.
 - Perkusioa.
 - VI. Musika Hizkuntzaren Saila.
 - VII. Orkestra, Talde, Ganbera Musika, Abesbatza eta Kantu Saila.
 - VIII. Analiaren, Harmoniaren, Konposizioaren Oinarrien eta Musikaren Historiaren Saila.
 - IX. Musika Modernoaren eta Jazzaren Saila.
 - X. Lutheria Saila.



Egon litezkeen bestelako hautazkoak beraien definizioagatik eta helburuengatik ondoen dagokien sailean sartuko dira.

Instrumentu osagarriek dagokienez, honela egingo da: oro har, beren lana egiten duten sailean sartuko dira; bat baino gehiagotan jardunez gero, berriz, denbora gehien ematen duten hartan, gainerakoekin sailburuaren bidez koordinatuz.

Sailak beste moduren batean antolatu edo banatu nahi izanez gero, Ikastegien Zuzendaritzari eskatu beharko zaio, behar bezala justifikatuta

Aurreko zerrendan sartu gabeko espezialitate edo irakasgaietan, zuzendariak erabakiko du zein sailetan sartu behar diren, irakasgairaren edo espezialitatearen kidetasunaren edo eraginkortasun handienaren arabera.

Sail bat baino gehiagotako diziplinak ematen dituen irakasleak zein sailetan sartzen dituen ordu gehien, haren bileretara joango da. Eta hilean behin, gutxienez, ordu gutxien sartzen dituen sailetara ere joango da.

Sail bakoitzak –banatuta egon ala ez– buru bakarra izango du administrazio-ondorioetarako.

6.3. Sailaren eginkizunak

Sailen zeregin eta eskumen nagusiak honako hauek dira:

- a) Saileko espezialitate eta irakasgaien programazioa prestatzea; koordinazioaz eta zuzendaritzaz sailburua arduratuko da.
- b) Saileko espezialitate eta irakasgaien programazioen arteko koherentzia bermatzea.
- c) Ikasleak ebaluatzeko irizpideak eta haiei eskatu beharreko gutxieneko ezagutzak zehaztea.
- d) Saileko irakaskuntzen garapen artistikoa hobetzen duten jarduera osagarriak antolatzea eta egitea.
- e) Saileko espezialitate eta irakasgaien programazioaren garapena ebaluatzea.
- f) Ikasturtea bukatutakoan memoria bat egitea programazioaren garapena eta emaitzak ebaluatzeko; sailak lortu diren emaitzetatik ateratzen dituen ondorioak ere aipatu beharko dira.
- g) Zuzendaritzak ikastegiko plangintzarako, antolamendurako, jardunerako eta irakaskuntzaren eta kudeaketaren ebaluaziorako proposatzen dituen gainerako egiteko guztiak.

6.4. Sailaren bilerak

Ikastegiko ordutegian, asteko ordubete gorde behar da gutxienez sailtako kide guztiak biltzeko; ordu horiek ikastegiaren funtzionamendu-ordutegiaren barruan sartu behar dira.

Sailak bitan bilduko dira. Lehenengo bilera ikasturte-hasieran egingo dute, ikasturte berrirako lan-plan bateratu bat egiteko. Bigarrena, berriz, bukaeran, estatistikak eta bukatu den ikasturtearen memoria egiteko: planifikatutako helburuak bete diren aztertuko dituzte, eta hobetzeko proposamen berriak egin eta hurrengo urterako beharrezko ikusten diren berrikuntzak sartuko dituzte.

Bilera guztietan arauzko akta idatziko da, eta gutxienez datu hauek jasoko dira bertan: zein egon den eta zein ez, gai-zerrenda eta zer erabaki hartu diren.

6.5. Sailen programazioak

Honako hauek jaso behar dira sailen programazioetan: helburuak; edukiak; metodologia eta baliabide



didaktikoak; ebaluazio-irizpideak, -faseak eta -prozedurak eta errekupeazioak; irakasgaietan sar litezkeen berrikuntzak –globalak eta ebaluazio bakoitzekoak– eta irakaskuntza berrien programazioaren garapena.

Hauek dira ikasturte-hasierako programazioak:

- Saileko irakasleen laneko gida orokorra, irakasle guztiek jarraitu behar dutena.
- Erreferentzia-puntu bat, ebaluatzeko nolako lana egin duen sailak ikasturte-bukaeran.
- Ikasleentzako erreferentzia-puntu bat, ikasturtea gainditzeko exijitu dakiekeen gutxieneoari buruzkoa.
- Erreferentzia-puntu bat ikuskaritza-lanari buruz.

6.6. Sailburutza

Saileko, irakasle batek jardungo du buru; kargu hori betetzeko, sailek irakasle bana proposatuko dute, ikastegian behin betiko lanpostua dutenen artean, eta zuzendaritzak izendatuko du. Sailen batek ez badu izendapen-proposamenik egiten, zuzendaritzak izendatuko du sailburua, ahal dela arduraldi arrunta duten irakasleen artean.

Honako eskumen hauek izango dituzte:

- a) Sailaren jardura akademiko bateratua zuzentzea eta koordinatzea.
- b) Sailaren bilerak deitzea eta zuzentzea.
- c) Ikasle-taldearen programazioaren garapenaren aldikako jarraipena egitea, eta programazioaren gutxieneko eduki eta exijentzia-mailak betetzen direla zaintzea.
- d) Bilera-aktak egitea.
- e) Zuzendaritza-taldearekin lankidetzan jardutea beste ikastegi eta entitateekiko harremanak sustatzeko prestakuntza-jardura osagarriak antolatzea.
- f) Ikasturtea bukatzean memoria idazteaz arduratzea.
- g) Zuzendaritza-taldearekin lankidetzan jardutea hark hezkuntza-jardueraren planifikazioari eta antolaketari eta ikastegiaren kudeaketari buruz proposatzen dituen jardueretan.

Sailburutzaren lanak eta pertsona bakarreko gobernu-organoen lanak ezin dira batera egin.

6.7. Saileko dokumentazioa

Sail didaktikoko eta koordinazio pedagogikoko sail guztiek akta-liburu bana izango dute, ikastegiko kide bakarreko eta kide anitzeko organoen eta ikuskaritzaren eskura egongo dena.

Akta bat egin behar da sailak egiten duen bilera bakoitzeko. Bilerako parte-hartzaile guztiek izenpetu behar dituzte aktak, eta sailburuak izendatutako irakasle batek idatzi behar ditu.

Azken ebaluazioaren ondoren, ikasturte hasierako programazioa aztertu behar da, eta zenbateraino bete den ikusi. Betetzen ez dena aztertu eta justifikatu egingo da, eta hurrengo ikasturterako hobekuntzak proposatuko dira.

Ikasleen proba, ariketa eta azterketak gorde egin behar dira, hala ezartzen baita ebazpen honetan bertan –kalifikazioen aurkako erreklamazioak egiteko eskubideari buruzko atalean– eta abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren 9. artikuluan –201/2008 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastegietako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa (EHAA; 2008-12-16).



6.8. Koordinazio pedagogikorako batzordea

Batzorde hori hilean behin bilduko da, gutxienez. Sailburuez gain, beste irakasle batzuek ere izan daitezke kide, hain zuzen ere zuzendaritza-taldearen iritziz aholkularitza- eta lankidetz-eginkizunak bete ditzaketenak.

Koordinatzaile pedagogiko bat izendatu daiteke, ikasketa-burutzak zuzendu eta gainbegiratuko dituen eginkizun eta ardura hauek izango dituen:

- Koordinatzea eta martxan jartzea curriculum-proiektua eta hezkuntza-proiektua.
- Bultzatzea kontserbatorioaren eta bigarren hezkuntzako ikastegiaren arteko komunikazioa eta lankidetz, dagozkien xedapenetan erregulatua dauden alderdi hauek koordinatzeko: baliozkotzeak, liberazioak, curriculum-egokitzapenak eta ordutegi-antolaketak.

Koordinatzaile horrek sailburuaren izaera bera izango du, eta ezingo du haren lana egin aldi berean.

7.- HEZKUNTZA-ARRETA

Irakasleek modu aktiboan lagundu behar dute ikasleekin egiten dituzten esku-hartze guztietan. Hezkuntza-arretako zeregin horretan, irakasleek bideratzaile, bitartekari, gidari edo laguntzaile gisa jardun behar dute, eta ikasleen oinarriko gaitasunak lantzen jarraitu behar dute, hezkuntza-eredu pedagogikoak eta hura garatzen duten dekretuek jasotzen duten bezala. Era berean, orientazioa hezkuntza-jarduera osoaren parte da, eta irakasleei dagokie, beren irakaskuntza-eginkizunaren zati gisa.

8.- TUTORETZAK

Ikasleei tutore bat esleituko zaie, zuzendaritza-taldeak izendatua; ahal dela, instrumentu nagusiaren irakaslea izango da, edo, Lutheria Eskolaren kasuan, instrumentu-eraikuntzako irakaslea. Tutore ez diren irakasleak eginkizun espezifikoaren koordinatzaile izendatu daitezke, eta zuzendaritza-taldeak agintzen dizkieten lanak egin beharko dituzte.

8.1. Irakasle tutorearen eginkizunak

Honako eginkizun hauek dituzte, besteak beste:

- a) Ikasle bakoitzaren jarraipena egitea; ikaslearen hezkuntzan parte hartzen duten irakasleen informazioa biltzea eta tutoretzari loturiko dokumentu akademikoak betetzea.
- b) Hezkuntza-sendogarriak eta curriculum-egokitzapenak ezartzea hala behar duten ikasleentzat, eta horiek praktikan jartzen direla ziurtatzea.
- c) Ikaslearen hezkuntzan parte hartzen duten irakasleekin biltzea, haien jarduketa koordinatzeko eta sortzen diren arazoak konpontzeko.
- d) Ebaluazio-saioak antolatu eta gidatzea, ikasketa-burutzak bilera-deia egiten duenean.
- e) Ikasleen bertaratze- eta diziplina-hutsegiteak kontrolatzea, eta familia abisatzea.
- f) Ikasleen legezko tutoreak informatzea: ikasturte-hasieran, eskola-helburu eta- programei eta ebaluazio-irizpideei buruz, eta ikasturtean zehar, berriz, hezkuntza- eta ebaluazio-prozesuei buruz.
- g) Ikasleen talde-integrazioa erraztea, eta ikastegiko jardueretan parte har dezaten sustatzea.
- h) Ikasleak orientatzea eta aholkatzea euren aukera akademiko eta profesionalei buruz.
- i) Ikasleen eskariak eta kezkak bideratzea, eta gainerako irakasleen eta zuzendaritza-taldearen aurrean bitartekari-lanak egitea sortzen diren arazoak konpontzeko.

Ikasleen legezko tutoreei arreta emateko, elkarrizketa-ordutegi bat egingo da. Ezin badira agertu ezarritako



ordutegian, beste ordu bat ematea eska dezakete, irakasleari beste ordu bat proposatzeko behar duen aurrerapenez jakinarazita betiere. Era berean, tutoreak gurasoak edo legezko tutoreak deitu ahal izango ditu ikaslearen nondik norakoen berri emateko beharra ikusten badu.

8.2. Bertaratze-hutsegiteen kontrola

Irakasle guztiek dute ikasleen bertaratzeak kontrolatzeko ardura (ikusi “Ikasleen bertaratzeak”), bai eta tutoreari egiten diren bertaratze-hutsegiteen berri emateko erantzukizuna ere. Tutoreen ardura da ikasleen hutsegiteen jarraipena egitea.

Familiei ikasleen bertaratze-hutsegiteen berri ematerakoan, ikastegiko Antolakuntza- eta jarduera-araudiak dioenari jarraituko zaio. Araudian gai horri buruz ezer esaten ez bada, ordezkaritza-organo gorenak familiei bertaratze-hutsegiteen berri emateko epeak ezarriko ditu, hutsegite horien informazio zuzena eta zehatza ematen zaiela ziurtatuz.

Ikasketa-burutzak neurriak hartu beharko ditu familiek hutsegiteen berri ezarritako epean izateko, eta ikastegiko zuzendaritzak eman behar dizkie aginduak tutoreei eta/edo ikastegiko administrazioko langileei.

III. IKASLEEN ANTOLAKETARI LOTUTAKO ALDERDIAK

1.- IKASLEEN ANTOLAKETA

Ikastegiak ikasleen ordutegia planifikatzen dutenean, curriculumaren barruan sartzten diren irakasgai guztiak koordinatuko ditu, kontserbatoriora irakasgai solte bakar batzuegatik joan beharrik izan ez dezaten.

Era berean, eta kontuan harturik 16 urtetik beherakoentzat nahitaezkoa dela erregimen orokorreko ikasketetara bertaratzea (Hezkuntzaren Lege Organikoaren 47.art.), irakaskuntza hauen eta erregimen orokorreko irakaskuntzen arteko aldibereotasuna ahalbideratzeko eta errazteko antolaketa- mekanismoak ezarriko dira.

Ikasleen behin betiko ordutegiak esleitu, eta ordu libreak geratzen badira, kontserbatorioek beste jarduera batzuk antolatu ahal izango dituzte hala behar duten ikasleentzat: laguntza, hezkuntza- sendogarria eta errekupeazioak.

2.- IKASLEEN ORDUTEGIA

Ikastegiko ordutegi orokorra erabat beteta geratuko da, honela: ahal diren ikasle guztiak ezarritako irizpide eta lehentasunen arabera kokatuko dira, ikastegiko giza baliabideek ematen dituzten aukeren arabera betiere.

Kontserbatorioko musika-talderen batean parte hartzen duten ikasleek lehentasuna izango dute ikasgai guztietako ordutegia aukeratzeko garaian, talde horietan parte hartzeko modua izan dezaten.

3.- NEURRI ESPEZIFIKOAK

Irakaskuntza berrietako ikasleak, gainera, irakaskuntza hauentzat ezarritako bateratze-neurri espezifikoetara atxiki daitezke: baliozkotzeak, curriculum-egokitzapenak, antolaketa, eta abar (Ikusi Ebazpen honen IV blokeko 2. atala).



4.- BALIOZKOTZEAK ARAUTU GABEKO LUTHERIA-IKASKETETAN

Ikasle batek matrikulatu ondoren eskatzen badu aurretik egindako eta gainditutako irakasgaiak baliozkotu dakizkion, hori batzorde batek aztertuko du, hala aurreikusten baita Baliozkotzeei buruzko maiatzaren Seko Aginduaren 12. artikuluan.

Batzordea honela osatuko da: Lutheriako irakasle bat, kontserbatorioaren ordezkari bat, idazkari gisa, eta Hezkuntza Administrazioaren ordezkari bat, lehendakari gisa. Ebazpenaren aurkako helegitea jarri ahal izango zaio Hezkuntza Berriztatzeke zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazitako egunetik zenbatzen hasita.

Interesdunak eskaera eta dagokion dokumentazioa aurkeztuko ditu, kontserbatorioko idazkaritzan, ikasturteko urriaren 10a baino lehen, IV. Eranskineko ereduaren arabera.

5.- IKASLEEN BERTARATZEAK ETA BAJAK

Ikasleek eskoletara joateko betebeharra dute, eta ikaslea matrikulatuta dagoen irakasgaietan ezin da inolako bertaratze boluntarioko sistemarik ezarri. Bakarrik salbuesten dira baliozkotze-prozesuan dauden irakasgaiak.

Irakasleek, beren aldetik, ikasleek egiten dituzten hutsegiteak kontrolatzeko betebeharra daukate. Araudia bete ezean, honela egingo da:

1. Irakasle bakoitzak lehenbailehen kontsignatuko ditu hutsegiteak, dagokion aplikazioan, eta ziurtagiriak zainduko ditu, ikasketa-burutzaren esku geratuko direnak.
2. Gurasoek edo tutoreek justifikatu beharko dituzte ikasle adingabeen hutsegiteak. Justifikazioa dagokion irakasleari aurkeztuko zaio. Helduek, berriz, beraiek justifikatu beharko dute, edozein lan-harremanetan eska daitezkeen ziurtagiriaren bidez. Hutsegiteen justifikazioa ikasketa-burutzaren bidez egingo da.

Bajak:

1.- Koordinazio pedagogikorako batzordeak ezarriko du, Sailek txostena egin ondoren, zenbat bertaratze-hutsegiterekin izango den ezinezko irakasgai baten etengabeko ebaluazio integratzaile bat egitea. Kopuru hori ez da inoiz izango dena delako irakasgairen ikasturte akademikoko eskola guztien ehuneko 20 baino gutxiago (6 hutsegite astean ordubetez ematen diren irakasgaietan, eta 12 orduko irakasgaietan, 2). Batzorde horri dagokio, halaber, ezartzea zein izango den, kasua bakoitzean, ordezeko-prozedurarik egokiena.

2.- Aurreko paragrafoan esandakoa gertatu delako ezinezko balitz ebaluazioa egitea ikasturtea osatzen duten irakasgaien erdian edo gehiagotan, horrek ikastegian baja ematea ekarriko luke, eta eskolako postua galduko luke ikasleak.

3.- Egoera horiek ebazteko orduan, kontuan hartu behar ezen irakasgai batera joateari erabat edo partzialki uzten dion ikaslea ekaineko ohiko deialdian kalifikatu behar dela aktetan eta kalifikazio- liburuetan, salbu eta hutsegiteengatik baja ematen zaionean edo matrikula baliogabetzen zaionean.

4.- Absentzia luzeak gaixotasun, istripu edo bestelako arrazoi batzuen ondorio badira –mediku-agiriz edo bestelako dokumentu ofizialez justifikatu behar dira–, ikasleak ez du ofizialtasuna galduko, eta hurrengo ikasturtean berriro matrikulatzeko aukera izango du, sartzeko proba egin gabe, betiere hala erabakitzen



badu ikastegiko zuzendaritza-taldeak ikaslearen egoera ezagutzen duen irakasle- taldeak aholkatuta. Erabaki hori ikaslearen espedienteen jasoko da.

6.- IKASTEGIZ KANPOKO JARDUERA OSAGARRIAK

Ikastegi batek eskolaz kanpoko jarduerak ikasleen eskola-orduen barruan egiteko asmorik badu (bisitaldiak, txangoak, kontzertuak etab.), ikastegiaren urteko planean aipatu behar ditu, jarduera osagarrien programan. Bestela, ordezkari-organoren gorenak aurretik onartu beharko ditu.

Jarduera didaktikoak direla-eta ikasle adingabeek ikastegitik atera behar badute, gurasoen edo tutoreen idatzizko baimena beharko da. Ikaslearen batek ez badu irteeran parte hartzen, ikastegian behar bezalako arreta jasoko du eskola-egun osoan.

Ikastegitik kanpo egiten den edozein jardueratan, ikasleekin batera gutxienez bi pertsonak egon beharko dute beti, eta horietako bat, gutxienez, ikastegiko irakaslea izango da; hala dagokienez, hezkuntza-laguntzako espezialistek ere egon beharko dute. Bestalde, ikasleei laguntzeko irakasle kopuruari dagokionez, gutxienez irakasle bat egongo da 20 ikasleko, edo irakasle bat 10etik gorako zatikiko, betiere aurrez aipatutako gutxieneko irakasle kopurua errespetatuz. Ahal den neurrian, irakasle laguntzaileak jarduera horretan parte hartzen duten ikasleen talde didaktikoaren kideak izango dira.

Zuzendariak edo hark eskuordetzen duen pertsonak erregistro eguneratu batean jaso behar ditu ikasleek ohiko eskola-orduetan egiten dituzten irteerak eta ikastegian bertan edo handik kanpo egiten dituzten eskolaz kanpoko jarduerak, eta jarduera bakoitzaren data, ordua, iraupena eta edukia adierazi behar ditu. Txosten hori ikastegian egongo da, ordezkari-organoren eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura.

Eskolaz kanpoko irteerak planifikatzean, kontuan hartu beharko dira ikasle guztien premiak, hezkuntza-premia bereziak dituztenenak barne. Ikasle guztiek dute jarduera horietan parte hartzeko eskubidea; beraz, alde aurretik ikusi, eta egokienak aukeratu beharko dira, inor ez baztertzen ahaleginduz.

7.- IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Gai honi dagokionez, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastegietako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoan (EHAA, abenduaren 16koa) araututakoa aplikatuko da, baita indarrean dagoen araudiari jarraikiz ikastegiko AJAn dekretu hori zehazteko arautzen dena ere.

Bestalde, ikasleen arteko tratu txarrak gertatzen direnean (bullying-a) berehala jakinarazi beharko zaio Hezkuntza Ikuskaritzari. Horrelako kasuetarako, Hezkuntza Sailak emandako Jarduteko Gida bat dute ikastegiek, ikaskideen artean eskolan tratu txarreko kasuren bat gertatuz gero jarraitu beharreko protokoloa jasotzen duena. Oinarrizkoa eta nahitaez bete beharrekoa da protokoloa, baina ikastegi bakoitzak egokitu edo zabaldu ahal izango du, bere testuinguruaren edo kasuaren berezitasunen arabera.

Horrelako kasuetan, gainera, erabateko arreta eta arduraz jokatu beharko da, eta, halakorik gertatzen bada, lehentasuna izango du ikastegiarentzat eta irakasleentzat.

8.- BABES-ESKUBIDEA

Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak bere 25. artikuluan agintzen duenez, "...hezkuntza-ikastegietako titularrek eta langileek adingabeen babesaren arloan eskumena duten herri-administrazioei edo, beharrezkoa bada, ministerio fiskalari edo epaileari jakinarazi behar dizkiete haurren babesgabetasuna ekar dezaketen egitateak".



Horrenbestez, ikastegiko zuzendariak babesgabetasun-egoera posible baten berri badu, gizarte-zerbitzuei ezagutarazi behar die. Jakinarazpena jasota, gizarte-zerbitzuen erantzukizuna izango da ahalik eta informazio gehien bildu eta kontrastatzea. Horretarako, BALORA izeneko tresna erabiliko dute (azaroaren 8ko 230/2011 Dekretu bidez onartua, abenduaren 12ko EHAAn argitaratua), kasu bakoitzean egoeraren larritasuna sistematizatu eta baloratzeko.

Tresna horretan babesgabetasun mota ezberdinak zehazten dira, eta horien artean dago “prestakuntza-premieko arduragabekeria”.

Hona hemen BALORArako esteka:

<http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/bopv2/datos/2011/12/1105937e.pdf>

9.- IKASLEEN ESPEDIENTE-LEKUALDATZEA

Erkidegoko hiru kontserbatorioetako ikasle ofizialek horietako edozeinetan onartuak izateko lehenetsuna dute: eskaeran adierazitako espezialitatean ikasten jarraitu dezakete hautaketa-probarik edo bestelakorik egin beharrik izan gabe.

Eskaera egiten den unean eskatutako kontserbatorioan plazarik ez badago, itxarote-zerrendan lehen postuan geratuko dira. Hala ere onartuko ez balute, hurrengo ikasturtean onartuko litzateke, betiere ikastetxearen plangintzak horretarako aukera ematen badu.

Kontserbatorioek matrikula-lekualdaketak onartu ahal izango dituzte beste zentro batzuetatik, baldin eta plaza hutsa badago, EAEko beste kontserbatorio publikoen eskaerei eta itxaron-zerrendei erantzun ondoren.

10.- MATRIKULA BALIOGABETZEA

Ikasleek matrikula baliogabetzea eska dezakete, ikasturtearen lehen hiruhilekoan zehar, zuzendaritzari arrazoitutako idatzi bat aurkeztuta. Ikastegiko zuzendaritzak matrikula baliogabetzea onartzearekin batera, ikasleak ikastegiko ikasle izateari utziko dio, eta inskripzioa ezereztu egingo da, ikaslea matrikulatuta dagoen irakasgai guztietan.

IV. IRAKASLEEN EBALUAZIOARI LOTUTAKO ALDERDIAK

Curriculumak ezartzen dituzten dekretuek (229/2007 Dekretua, ikasketa profesionalena, eta 250/2005 Dekretua, oinarrizko irakaskuntzena) irakaskuntza horietan ebaluazioa nola egin behar den azaltzen dute.

Gainera, Hezkuntzako sailburuaren 2021eko apirilaren 26ko Aginduak xehetasun handiagoz zehazten du Musika-ikasketa profesionalak egiten dituzten ikasleen ebaluazioaren, mailaz igotzearen eta iraunkortasunaren erregulazioa.

1.- EBALUAZIO-BILERAK

Derrigorrezko bilerak dira irakasle-taldearentzat eta taldeko tutoreak koordinatzen ditu. Bilera horietan, bilkura bakoitzaren datara arte egindako ebaluazio-jardueren emaitzak dokumentu bidez jaso behar dira, taldekideek eztabaidatu ondoren.



1.1. Ebaluazioaren baldintzak (1577/2006 ED, 11. artikulua)

Ebaluazioa baliozkoa izan dadin, gutxienez honako baldintza hauek bete behar dira:

- a) Tartean dauden irakasle guztiak bertaratzeko aukera ematen duen orduan egin behar da.
- b) Tartean dagoen hezkuntza-talde osoa bertaratu behar da, nahitaezkoa baita.

1.2. Bilera-akta

Ebaluazio-akta bat egin behar da ebaluazio-bilera bakoitzeko, eta aktak gai hauek adierazi behar ditu, gutxienez:

- a) Parte hartu duten irakasleen zerrenda eta haien sinadurak.
- b) Parte hartu ez duten irakasleen zerrenda. Berariaz adierazi behar da bilerara ez joateko baimenik zuten ala ez.
- c) Irakasgai bakoitzean lortutako emaitzen eta izan diren arazoaren analisia.
- d) Banakako arazo batzuen analisia egitea eta hezkuntza-sendogarriko edo bestelako jarduketaneurriak hartzea.

1.3. Azken ebaluazioa

Irakaskuntza profesionaletako ikasturte bakoitza bukatu ondoren, eta ebaluazio-prozesuaren ondorio bezala, ebaluazio-taldeak, ikaslearen irakasleez osatua, erabakiko du ikaslea hurrengo ikasturtera igaroko den ala ez.

Ikasleek jarraikako ebaluazio-prozesuan gainditu ez dituzten irakasgaietako ezohiko proba bat egin dezakete. Proba hori irakasgai bakoitzaren Sail didaktikoek egin eta kalifikatuko dute, eta ekainean egingo da, kontserbatorioetako eskola-egutegietan aurreikusitako 160 eskola-egunak bukatu ondoren.

2.- BALIOZKOTZEAK ETA CURRICULUM-EGOKITZAPENAK

Curriculumak musikako oinarrizko irakaskuntzetan eta, batez ere, musika-irakaskuntza profesionaletan duen intentsitateak gainesfortzu nabarmena eskatzen die musika arautuko ikasleei, araubide orokorreko ikasketekin bateratu behar baitituzte. Horregatik, eta 16 urtetik beherako ikasleentzat irakaskuntza nahitaezkoa dela kontuan hartuta, baliozkotzeei buruz indarrean dagoen araudia erabiliz, musika-irakaskuntzak eta araubide orokorreko irakaskuntzak aldi berean egitea erraztuko duten antolaketa-mekanismoak ezarri beharko dira.

Musikako edo Dantzako Irakaskuntza Profesionalak eta DBH edo Batxilergoa batera egiten dituzten ikasleen baliozkotzeak eta curriculum-egokitzapenak Uztailaren 13ko 194/2010 Dekretuaren arabera egingo dira, hor xedatzen baita zein diren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakasgai jakin batzuen eta Musika eta Dantza Ikasketa Profesionaltako zenbait irakasgaien arteko baliozkotzeak, eta zein eragin izan behar duen goi-mailako edo errendimendu handiko kirolari izateak Gorputz Hezkuntza irakasgai eta Dantza Ikasketa Profesionaltako ikasleentzat.

Baliozkotze eta curriculum-egokitzapen horiek eskatzeko epea urriaren 15ean bukatzen da. Institutuaren zuzendariak ebartziko du eskaera, azaroaren 1a baino lehen. Zuzendariak ebazpen horien kopiak bidaliko ditu Hezkuntza Berritzatzeko Saileko Zuzendaritzako Ikasketen Antolamendurako Zerbitzura, azaroaren 15a baino lehen.



Batxilergoko ikasleentzako ebaluazio aurreratua

Ikasketa profesionalean matrikulatutako ikasleei, baldin eta, aldi berean, Batxilergoko 2. urteko ikasgai komunak egiten badituzte (229/2007 Dekretua, Lehen Xedapen Gehigarria, 1. paragrafoa), behar besteko aurrerapenaz egingo zaizkie azterketak eta ebaluazioak notak Batxilergoa egiten ari diren ikastetxeko ohiko ebaluazio-saiora bidaltzeko Ebaluatu ondoren, eskoletara joaten jarraitu beharko dute, eskola- egutegian finkaturiko eskola-egunak bete arte. Ezohiko proban berdin egingo da.

3.- ARAUTU GABEKO LUTHERIA-IKASKETAK (BELE)

2023-2024 ikasturtean, hiru ebaluazio egingo dira, CPM Juan Crisóstomo de Arriaga MKP Kontserbatorioaren egutegian aurreikusitako egunetan.

Irakaskuntza horietako ikasturte bakoitza bukatu ondoren, eta ebaluazio-prozesuaren ondorio bezala, ebaluazio-taldeak, ikaslearen irakasleez osatua, erabakiko du ikaslea hurrengo ikasturtera igaroko den ala ez.

Ikasleek etengabeko ebaluazio-prozesuan gaintitu ez dituzten irakasgaietako ezohiko proba bat egin dezakete. Proba hori irakasgai bakoitzaren arduradunek egin eta kalifikatuko dute, eta ekainean egingo da, Bilboko Kontserbatorioko eskola-egutegian aurreikusitako 160 eskola-egunak bukatu ondoren.

Instrumentuak

BELE Bilboko Lutheriako Euskal Eskolan emandako hiru ikasturteetan, ikasleek hiru instrumentu egin behako dituzte.

Matrikulak estaliko ditu lehenengo hiru instrumentuen materialak, irakasle-taldeak finkaturiko estandar batzuetan oinarrituta. Bukatutako instrumentuak eskolaren esku geratuko dira, haren proiektuetan erabili ahal izateko (Instrumentu-mailegua, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariaren 2017ko apirilaren 30eko Ebazpenaren bidez erregulatua), edo Administrazioak bultzatutako edo baimendutako helburuetarako.

Ikasturtearen ebaluazio globala lortzeko, nahitaezkoa izango da ikasleak ikasturtean zehar egindako instrumentua entregatzea.

Eskolak erregistratu egingo ditu entregatutako instrumentuak, eta, hala badagokio, zer helburutarako edo proiektutarako erabili diren ere bai.

Kontrolako inbentario hori V. Eranskinean ezarritako ereduaren arabera egin behar da, eta Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzara bidali, 2023ko abenduaren 20a baino lehen.

Azken proiekturako egin beharreko laugarren instrumenturako materialak ikasleak berak jarriko ditu. Egindako instrumentua eskolan utziko da, urtebetez, eta, gero, egilearena izatera pasako da.

4.- KALIFIKAZIOEN GAINEKO ERREKLAMAZIOA JARTZEKO PROZEDURA

Ikasleek eskubidea dute errendimendu akademikoa objektiboki balioets dakien, eta, beraz, ikasturtea hasi baino lehen jakin behar dute zein diren gai bakoitzaren helburuak eta gutxienezko edukiak, eta zer ebaluazio-irizpide aplikatuko zaizkien, uniformeki, ikasturte eta gai bateko ikasle guztiei. Horiek guztiak publiko egin beharko ditu ikastegiak, denak jakinaren gainean egon daitezen, eta sailtako programazioan jasoko.



Ikasleek eskubidea dute kalifikazioan eragina izan dezakeen edozein azterketa edo idatzizko proba ikusteko, zuzenduta eta kalifikatuta. Idatzizko proba edo azterketa horiek ikusi ondoren, dagokion sailean gordailutuko dira, urtebetez.

Musikako kontserbatorio profesionalen kalifikazioen aurkako erreklamazioak aurkezteko prozedura arautu beharko dute antolamendu- eta funtzionamendu-erregelamenduan. Prozedura horrek bermatuko du ikasleek edo haien legezko tutoreek eskuragarri izango dutela ebaluazio- eta kalifikazio-prozesuan erabilitako edozein elementu. Horretarako, ikastetxeak euskarri eta prozedura egokiak ezarri beharko ditu.

2021eko apirilaren 26ko AGINDUAREN 10. artikulua deskribatzen du nola ezarri behar den prozedura hori.

4.1. Ikastegian erreklamazioa

Azken kalifikazioekin bat ez datozen ikasleek berrikusteko eskaera egin dezakete, hiru eguneko epean, emaitza jakinarazi edo publikatzen den egunetik aurrera kontaturik.

Eskaeran, azken kalifikazioarekiko edo hartutako erabakiarekiko ezadostasuna justifikatzeko behar beste alegazio egingo dira, ikastegiaren zuzendaritzari zuzenduta. Zuzendaritzak dagokion Sailari aurkeztuko dio erreklamazioa, zeinak erreklamazioa aztertuko baitu, kontuan hartuz, funtsean, ea probak erantzuten dien ezarritako eta publikatutako eduki-mailei eta ebaluazio-irizpideei.

Erreklamazioa baietsiz gero, sailaren burutzak ikasketa-burutzari komunikatuko dio, arrazoitutako idatzi baten bidez, zein izan den erabakia, emandako kalifikazioa berrestea ala aldatzea. Erabakia interesdunari jakinaraziko zaio.

4.2. Ikastegitik kanpoko instantzien aurreko erreklamazioak

Ikastegiak azterketa berrikusi eta gero ikaslea ez badago ados lortutako kalifikazioarekin, alegazio-idatzi bat aurkeztu ahal izango dio Hezkuntza Lurralde Ordezkaritari. Gorabehera hori ikastetxeko zuzendaritzari jakinaraziko zaio, eta hark Ikuskaritzara bidaliko ditu erreklamazioaren xede diren jatorrizko ariketak, programazioa, eskatutako maila eta ebaluazio-irizpideak jasotzen dituen sailaren dokumentazioa eta erreklamazioak ikastetxean sotru duen prozesuari dagokion dokumentazioa.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertuko du Hezkuntzako Ikuskaritzak, dagokion Sailak aurrez ezarritako programazio-edukiei eta ebaluazio-irizpideei egokitzen zaien ikusteko.

Kasu guztietan, ikuskaritzaren txostena eta proposamena Hezkuntzako Lurralde-ordezkaritari bidaliko zaizkio. Lurralde-ordezkaririk dagokion ebazpena emango du, arrazoituta beti, eta berehala komunikatu dio zuzendaritzari, aplikatu dezan eta interesdunari jakinaraz diezaien. Lurralde-ordezkarieren ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari.



V. IRAKASKUNTZEN CURRÍCULUMA. PROIEKTUAK

1.- CURRÍCULUMA

Oinarrizko irakaskuntzetan, asteko ordutegi-taula honako hau da espezialitate guztietan:

Irakasgaiak	Maila eta asteko orduak			
	1.	2.	3.	4.
Instrumentua	1	1	1	1
Musika Hizkuntza	2	2	2	2
Korua			1	1
Instrumentu-praktika			1	1
orduak, guztira	3	3	5	5

Irakaskuntza profesioetan, abenduaren 11ko 229/2007 Dekretua aplikatuz, hiru kontserbatorioetako bakoitzean, espezialitateen arabera orduetegi-taulak I. eranskinean jasotakoak dira.

Tutuak eraikitzekeo tailerra

Abenduaren 11ko 229/2007 Dekretuak musika-irakaskuntza profesionalen curriculuma ezartzen du. Zurezko haize-instrumentuen espezialitateen irakaskuntzen edukian, mihi bikoitzeko instrumentuetarako kanaberen fabrikazioa jasotzen da, metodo tradizionalen arabera. Lan horren espezifikotasuna kontuan hartuta, eta ikastetxearen antolamenduak horretarako aukera ematen badu, kontserbatorioek asteko ordu erdi osagarria eskainiko diete ikasleei, haien prestakuntzaren osagarri gisa.

Asteko bi tailer antola daitezke, ordu erdikoak, edo hamabostaldiko bi tailer, ordubetekoak, Fagoteko eta Oboeko ikasleak biltzen dituztenak, dela espezialitateen arabera taldekatuta –Oboea tailer batean, eta Fagota bestean–, dela ikasturteka taldekatuta. Tailerrak izen hau izango du: “Tutuak eraikitzekeo tailerra”, eta Fagoteko eta Oboeko espezialitateetako irakasleek emango dute. Bi tailerren artean ordubete emango da astean. Tailer horien eraketa irakaskuntza-jardueren planean jasoko da.

2.- RATIOAK ETA APLIKAZIO-IRIZPIDEAK

2.1. Ratioak eta curriculumaren hainbat ikasgairen ratioak

Zerrendatutako ikasgaietako ratioak honako hauek izango dira:

Oinarrizko irakaskuntzak

irakasgaia:	Ikasleak/irakaslea
Espezialitateko instrumentua eta kantua	1
Musika Hizkuntza	12-15
Instrumentu-praktika I	---
Korua	---



Irakaskuntza profesionalak

irakasgaia:	Ikasleak/irakaslea
Espezialitateko instrumentua eta kantua	1
Musika Hizkuntza	12-15
Instrumentu osagarria	- - -
Harmonia	8
Akonpainamendua	3
Ganbera Musika	2 – 7
Orkestra/Banda/Taldea	- - -
Koroa	- - -
Kantuari aplikatutako hizkuntza	6
Errepertorioa pianistaren edo klabezinistaren akonpainamendurekin.	1
Musikaren historia	15
Konposizioaren oinarriak	4
Analisia	8
Errepertorioa instrumentu nagusiarekin	1
Hautazko osagarriak	motaren arabera

2.2. Hauek dira aplikazio-irizpideak:

Ikasgai bakoitzeko talde-kopurua ikasle-kopuruaren eta dagokion gehieneko ratioaren arteko zatiketaren zati osoa izango da.

- Hondarra gehieneko ratioaren erdia gehi bat bada (8 Musika Hizkuntzan eta Musikaren Historian, eta 2 Akonpainamenduan) talde berri bat sortuko da.
- Gehieneko ratioaren erdia edo gutxiago bada, eraturako taldeen artean banatuko da hondarra.

Adibidez: Armoniako 37 ikaslek 8 taldeko 4 talde ematen dituzte, eta gainerakoek bost: talde berri bat sortuko litzateke, 5.a; hala ere, 36 ikaslek 4 talde ematen dituzte, eta gainerakoak 4 dira: lau horiek beste talde bat sortu gabe osatutako taldeei gehituko litzaizkieke.

Ikastegiaren iritziz egoera bereziren bat gertatuz gero, salbuespena eska daiteke, justifikatuz eta, betiere, eskura dauden giza baliabideekin egin ahal bada.

3.- TALDE-JARDUERAK

Ikasleen banakako irakaskuntzaren barruan, emankizun publikotan parte hartuta beren gaitasuna handitzen laguntzeko asmoz, kontserbatorioak erabili beharreko mekanismo guztiak erabiliko ditu ikasle guztiek kurtsuaren joanean errezitaldiren batean parte har dezaten.

Era berean, talde-jarduerak sustatuko dituzte musika-irakaskuntzen oinarrizko ardatz gisa, eta praktika hori ikastegietan modu egonkorrean bermatu ahal izateko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak jarriko dituzte.

Ahots- eta instrumentu-taldeen osaera, funtzionamendua eta ordutegia zuzendaritza-taldeak ezarriko ditu. Ildo horretan, batzorde kudeatzaile bat sortu ahal izango da, hezkuntza-komunitateko sektoreen ordezkariarekin. Hori OOGak onartu beharko du, eta Hezkuntza Ikuskaritzari komunikatuko zaio. Eguneroko



funtzionamenduak araudi espezifikokoak egitea eskatuko balu, batzorde kudeatzaileak egingo lituzke, eta organo eskudunak onartuko.

Gastuak (instrumentuak eta kideak eta horien aseguruak, atrilak, partiturak, partizelak eta abar) ikastegiak ordainduko ditu, bere aurrekontuen arabera.

Irakasleak talde-jardueretan izan beharreko arduraldia dena delako taldearen eta haren beharren arabera ezarriko da. Horretarako irizpideak zuzendaritza-taldeak ezarriko ditu, eta irakasle bat baino gehiago daudenean inplikaturata arduraldia nola banatuko den ere bai.

4.- HAUTAZKOEN ESKAINTZA

Hautazko eskaintzan, kontserbatorioek berriazko adarren bat indartu ahal izango dute; esate baterako, honako hauek:

Jazzaren eta musika modernoaren irakaskuntza: Hezkuntza sailak kontserbatorioetan babesa ematen die ditu jazzaren eta musika modernoaren irakaskuntza bultzatzeko proiektuei, arlo horretan dauden prestakuntza-beharrak asetze aldera.

Organoaren irakaskuntza: Vitoria-Gasteizko CPM Jesús Guridi MKPk kontserbatorioan organoaren irakaskuntza bultzatzeko proiektua garatzen du.

6.- KONTSERBATORIOEK KOORDINATUTAKO SAILAREN PROIEKTUAK

